




ELKARRIZKETA: IGNACIO JIMENO, PSE-EEKO ZINEGOTZI OHIA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
maiatzaren 12a
496. zenb.



Arrasateko harrobia

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: JUAN RAMON MIGEL
KIROLA: LUR, URETAKO SALBAMENDU TXAKURRA • KULTURA: CORAZON DE ENCINA

Eguzki betaurreko **graduatuak**



Edozein betaurreko mota graduatzen dugu (kirola egiteko, gidatzeko,...), betaurrekoaren prezioari gehigarria erantsiz.

3.900 pta.ko
plusa.



**INSTITUTO
OPTICO**

Erdiko kale, 22 - Tel.: 943 79 71 68 / Hiper Eroski - Tel.: 943 79 78 26 - ARRASATE (GIPUZKOA)

Erdiko kale, 21 - Tel.: 943 60 31 54 MUTRIKU (GIPUZKOA)

Andra Mari, 8 - Tel.: 94 620 29 86 / Grupo San Ignacio,6 - Tel.: 94 681 84 92 - DURANGO (BIZKAIA)

Heriotza, hilketa eta erailketaz

Ez dugu gizakiok maite dugun edozeinen heriotza inoiz onartu. Ezinbestekoa dela jakin arren, denoi etorriko zaigula ikusi arren... ondoko horrek uzten duen hutsune bete ezina, amets gaiztoa balitz bizi izaten dugu luzaroan, denboraren igarotzeak, igarotze luze batek... bueltarik ez duela garbi utzi arte... eta hala ere... "...gehiago egin izan bagenu... ", "...hau edo bestea egin banu... esan baino... ekiditu zitekeen... "



Nekane San Migel

Aiena horiek egonezina gehitzen dute beste gizaki batek heriotz horretan inolako zerikusirik izan dueneko edonolako susmoak:

zuhurgabekeriak eragin badu, istripu batek... salaketak, zigor eskari gogorak, kalteordain sendo baten ezartzeak... bizitza bueltatuko balio moduan jokatzeko dugu... ez dugu gorpua ere

Maitasuna, hutsunea... gizaki guztion etsipena eta sufrimendua berdintsua da

eramaten duenean. Berdin zaizu zeren izenean hartu duen erabakia... Naturaren "eskubidea" zalantzan jartzen badugu, nola ez jarri "gizaki mugatu batena"?... Hor bai askatzen direla minak, gorrotoak, mendeku eskariak... bihotza urratzeraino... Jokamolde hauetan ez dut salbuespenik ikusi: Maitasuna, hutsunea... gizaki guztion etsipena eta sufrimendua berdintsua da... baina zalantza handiak ditut beste pertsona bat alde aurretik erabakita erahil behar duenaren

lurperatzen (oroimena sekula ez) zer gertatu den, noren errua izan den argitu arte.

Baina denak gainezka egiten du heriotz hori beste gizaki batek hotzean erabaki badu... Kontrolatu ezin dugun naturaren eraginak ekartzen digun min bortitze-nak, urratzaileenak bihurtzen dira norbaitek zure ondoko horrek bizitzeko eskubiderik ez duenaren erabakia aurrera

burutik horrelakorik pasatzen denik... heriotza eragingo dion hori maitatua dela, inguruko bizitzan zati bat betetzen duela, bere antzera sentitzen duela (nahiz beste ikusmolde batzuk izan)... Behin bakarrik horretan pentsatzen jarriko balitz, une horretan "bere eskuetan" duen bizitza hori hurbilegi sentituko lukeela pentsatu nahi dut... bizitza hori arnasten duena, pertsona, kide sentituko luke... eta ez idea baten irudi, edo lan baten egile (idea hori, edo lan hori, bat ere gustokoa ez izan arren)... Eta gure moduan sentitzen duela konturatzeak hurbiltasuna sentiarazteaz gain, zaurgarri uzten zaitu pertsona hori, eta zaurgarria ahuleziaren erakusle bihurtu... gizaki bakarra hori baita. Eta bakarrik, ez du zuk jasaten duzun guzti horren errua. Eta bera bukatu delako, ez da zure arazoa soluzio-bidean jartzen.

Denok gogoratuko duzue bertso zaharrak jasotzen zuena: "Ia guriak egin du... elkarrengana bildu, jaioko dira berriak...", baina inozoa dirudi "berri" horiek alde batekoak bakarrik izan daitezkeela pentsatzea...

"Mondragoeko alderdikide batzuk joan egin beharko lirateke".

Ignacio Jimeno

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría. **Publikatzailea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiztegorri, Ane Beretxibar. (Tel.: 943 71 23 90) **Disenatzailea:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakia:** Izaskun Salazar. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoeko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Xabier Urzelai.

Arrasateko Udaleren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundaren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

149.785

m² urbanizatzea aurreikusitako udaleko Hirigintza Sailak Cerrajerako lurzatian.

San Andres auzoko Etxaluzetik Zaldusperainoko zatia, hain zuzen ere. Espazio horretan 312 etxebizitza eraikiko dira eta noski, inguru guztia txukunduko da.

A U R K I B I D E A

• Ikuspegia 3	• Auzoz auzo 22
• Heriotza, hilketa eta erailketaz	• Zigorrola
• Inkesta 5	• Aurrez aurre 24/25
• Euren ikuspuntutik 6	• Ignacio Jimeno
• ACCUko kidea	• Zaldibar 27
• Asteko hitzorduak 8/9	• Kirolak jokoan 28/29
• Astearen errepasoa 10	• Eskola kirola 30
• Orain eta hemen 12/13	• Kulturaren txokoa 31/32
• Txutxumutxuak 14	• Ikusi eta entzun 34/35
• Asteko gaia 16/17/18	• Azoka plaza 36/37
• Goi mailetako futbolari gazteak	• Foto zaharra 38

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agadako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

KONPROMISOAREN MOMENTUA

U ne latzak bizi ditugun sasoi hauetan askok pentsa dezake hauek baka-rrik direla une gaitz eta larriak. Euskal preso politikoaren inguruan dihardugunontzat, ostera, lasaitasun momenturik ez dugula ezagutu esan behar da. Presoek betiko arazoekin jarraitu izan dute: bisita arazoekin sarritan, lehen graduaren egotearen ondorengo bizi baldintza eskasetan, bideratu gabeko edo berandu bideratutako osasun arazoekin, osasunez oso larri dauden familiar-tekoak ikusi ezinik.... Mila dira egunerokotasunean presoek dituzten arazo txikiak, baina horietako hiru oso larriak dira eta zuzenbideko estatu batean eta gizalege ikuspegitik onartezinak: bat, Euskal Herritik ehunka kilometrotara egotea; bi, horietako batzuk kartzelan jarraitzea, espetxe zigorraren hiru laurdenak bete-ta dauzkatelako aspaldi kalean egon beharko luketenean; eta hiru, gaitz larriak dituzte-nek, libre beharrean, kartzelan jarraitzen dutela.

Berez dira larriak arazo horiek, legediaren aurka doa-zelako batetik, eta bestetik, euskal gizarteak modu askotan adierazi izan duelako preso-en eskubideak errespetatu behar direla. Hau da, euskal gizartearen berbak ez duela piperrik balio Espainia eta Frantziako Gobernuentzat, giza eskubideen errespetuaz ahobetez ari direnean, preso-

ak eta euren familien eskubi-deak bost axola diela. Argi dago instrumentu politiko moduan erabiltzen dituztela eta argi dago horren aurka egin behar dugula.

Bakoitzak ikusiko du hori nola egin. Presoak aspaldi ari dira gose greban, zoritxarrez beren ahotsa entzunarazteko biderik gogorrenari heldu behar izanda; heriotzara gerturatu dira zenbaitzuk borroka molde horretan, eta beste batzuek oihartzun mediatiko-rik gabeko ondorio latzak jasan dituzte. Orain euskal gizarte-aren txanda da. Geldi ez gaude baina gehiago egin behar dugu: bai preso-en eskaerari erantzun behar zaiolako, baita euskal gizarteak bizi duen prozesu politikoan lagungarri izango delako, eta baita euskal gizarteak mila bider eta mila moduz preso-en eskubi-deak errespetatzea eskatu due-lako. Bakoitzak beretik eta guztiok batera, baina egin.

Arrasateko Senideak

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 12

- Azkoaga, Ferrerías

Larunbata, 13

- Azkoaga, Iturriotz

Igandea, 14

- Korkuera, Musakola

Astelehena, 15

- Irizar, Erguin

Astearte, 16

- Amezua, Santa Marina

Asteazkena, 17

- Zabala, Zarugalde

Osteguna, 18

- Ruiz, Maalako Errabala

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Nori emango zenioke Urrezko Astokiloa?

Larunbatean banatuko da San Isidrotako Urrezko Astokiloa Zigorrolan.



Vicente Alonso
(60 urte)
Erretiratua

Galziarrari, Ramiro Hermidari, bera da eta astoa gehien zaintzen duena. Beti astoaren inguruan aritzen da paseatzen.



Gregorio Rodriguez
(62 urte)
Erretiratua

Alkateari, bere burua aurkezteagatik alkate izateko. Meritua behintza, badauka.



Felisa Biteri
(50 urte)
Langilea

Oso zaila da, hemen asto ugari dago eta.



Jose Manuel Petite
(33 urte)
Langilea

Zaila da. Ez dakit nortzuk izendatu dituzten. Neuri bes-tela... Jende asko dago, baina ez dakit nori.



Andoni Lopez
(30 urte)
Langilea

Ez dakit nori. Izatez Zigorrolakoa naiz, baina kalean denbora gehiago egiten dut.



Maximina Hernandez
(61 urte)
Erretiratua

Ez dakit nori. Agian, erretiratuen lehendakariari.



Mertxe Martinez
(64 urte)
Erretiratua

Urte luzez katekistek egin dugun lana saritzeko zain egon gara; aurren guretzat izan beharko litzateke Urrezko Astokiloa.



Jone Puente
(38 urte)
Etxekoandrea

Gazte Txokoko arduradunei, lan handia egiten dutelako auzoko neska-mutikoeekin.


Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44



TXIRRITA

Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Anaia handia

Aste honetan "Anaia Handia"ri buruzko e-mezu bat bidali didate: "Anaia Handia iruzurra da". Izenburu hori zekarren mezuak eta ondoren kristorenak eta bi esaten zituen programari buruz. Hemen, ordea, bat bakarrik ekarri dut gogora: lehiakideak, ordaindutako aktoreak dira. Eta berak emandako arrazoak irakurrita, badauka bai zentzurik. Nola da posible egiten dituzten gauzak egitea telebistaren aurrean? Eta 20 milioi irabazteko aurkeztu eta horren lagun handiak egitea? Mezuaren arabera, dena aurrez prestatuta dago eta arrodio konturen bat izango duten hurrengo bi lehiakideak pastelgilea eta ile beltzarana dira.

Bitartean, trago bat hartzera irten eguakitz gauean eta lagun guztiak "Anaia Handia"n ikusi dutenez berrikeretan. Beno, behintzat komunikatze-ko balio du. Ze bestela, guztiok tontotzeko baino ez da. Hamar gizaki zorok elkarrekin hiru hilabete pasatu behar dutela eta, euren berri zuzenezuzenean izatea 24 orduz, eta sekulako komunikabide mordoarekin, ez da ez batere logikoa.

Marijo Deogracias



Gaixotasuna ezagutzea

* Juan Ramon Miguel

Maiatzaren 13an, Donostian, Hesteetako Hanturazko Gaixotasunaren eta Kolitis Ultzerosoaren Lehenengo Europar Eguna egingo da. Hori dela eta, Arrasate Pressek kanpora begiratzeko, gizartera begiratzeko, leiho bat irekitzeko, aukera ematen digu eta, bide batez, iritzi publikoari gaixotasun hau zertan datzan azaltzeko aukera; izan ere, gero eta gaixoko gehiago dago eta gero eta gazteagoak gainera. Ez da oso ezaguna eta berari eragiten duten arrazoiak ere ez dira ezagutzen, baina gizarte garatuenetan ematen da. Hesteetako hanturazko gaixotasun hauek eragiten dituzten arazoak direla eta, gaixook elkarte bat eratu dugu: ACCU; hau da, hesteetako hanturazko gaixotasuna eta kolitis ultzerosoa duten gaixoen elkarte. Estatu mailako elkarte da, eta Europar Federazioaren partaidea da. Epe laburreko helburua ondokoa da: familian, gizartean eta lanean, hau da, bizitzako arlo guztietan,

gaixotasun "arraro" baten ezagutza faltagatik aurkitzen ditugun zailtasun ugariak gainditzea. Hesteetako hanturazko gaixotasunak liseri aparatuari eragiten dio. Gaixok izaten dituzten sintoma arruntenak egunero izaten dituzten beherakoak dira. Larritasunaren arabera, sabaleko mina, irauzkinetan odola, sukarra, nekea, gose faltak eragindako pisu galera eta ondoez orokorra ere pairatzen dute. Hesteetaz gain, gorpuzteko beste atal batzuk ere kalteak izaten dira: giltzaduretako mina, begi handituak, azaleko ultzerak, eta abar. Gaixotasunak hainbat age-

rraldi izan ditzake, edo bali-teke sintomak etengabe izatea. Sintomak hain ugariak eta ezberdinak izan daitezkeen, oso zaila da diagnosi goiztiarra egitea. Diagnostika egiten den arte, histeriko-obsesiboa balitz bezala tratatzen da gaixoa, berez sortutako depresioa, hemorroideak, hesteetako infekzioak, eta abarrekin.

Tratamenduak gaixotasunaren eragina leuntzea du helburu. Hanturaren aurkako botikekin eta kortikoideekin, agerraldiak gero eta laburragoak eta gero eta arinagoak izatea nahi da. Dosi handiak hartzen badira denbora luzez, botika horiek bigarren mailako efektu oso kaltegarriak izan ditzakete epe luzera. Azken konponbidea ebakuntza da, baina horrek ere ez du gaixotasuna ezabatzen.

Penak azaltzeko txoko honetatik, eta hesteetako hanturazko gaixotasunak ikututakoa naizenez, gaitz horren apetak isilean jasaten dituzten guztiak elkartaren kide egin daitezen animatu nahi ditut. Guk denok dugu besteek ulertzen ez duten zerbait, eta desberdintasuna sumatuko duzu. Ez zaitez bakartu, egin gaitzazu zure arazoaren parte, gaixotasuna ezagutzea aurre hartzea baita.

*ACCUko kidea

“ Bizitzako arlo guztietan, gaixotasun "arraro" baten ezagutza faltagatik zailtasunak aurkitzen ditugu ”



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia) Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea ARRASATE Tel.: 943 79 22 70

hildakoak

- Gregoria Saracibar Larrauri, 86 urte, maiatzaren 3an.
- Apolinaria Ortiz de Anda Fdz. de la Torre. 94 urte, maiatzaren 5ean.
- Angela Perez Serrano. 67 urte, maiatzaren 10ean.

ezkontzak

- Eugenio Herreros eta Beatriz Zubillaga, apirilaren 25ean.
- Juan Carlos Murillo eta Margarita Estevez, apirilaren 29an.

jaiotzak

- Ivan Gomez Martins, maiatzaren 8an.
- Irene Elduayen Roldan, maiatzaren 7an.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)

Igandea
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)

Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)

Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)

Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)

Igandea
10:30 (erdaraz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata
19:00 (erdaraz)

Igandea
12:00 (erdaraz)

Lanak

OLARTE

Konponketen ondoren, Olarteko goiko aldean espaloi gainean ezin da autorik laga.

OBENERREKA

Santamaina aldean oinezkoen pasabidean lanek segitzen dute.


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 12

Oso lainotua. Arratsaldean euria egingo du. Hegoaizera apur bat.



LARUNBATA 13

Laino gutxi goizean, arratsalderako areagotu egingo den arren. Euria egingo du.




IGANDEA 14

Txar tankerak jarraituko du. Goizean oskarbi apurak, arratsaldean hodeiak eta euria.

Urkuluko uraren maila

%81,8



Ilargia



Ilbete

Maiatzaren 18an, ilargi bete izango dugu.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91



ESKER ONA
Poli Ortiz de Anda Fdez de la Torre

2000.eko maiatzaren 5ean hil zen, 94 urterekin

Bere familiaren partetik, eskerrik beroenak momentu hauek pasatzen lagundu diguzuen guztioi.

12

ostirala

■ ZINEMA

El Fin del Romance, 19:00 - 22:00, Alai zineman.

■ JAI GIROA MUSAKO-LAKO HERRI-ESKOLAN

Musakolako Herri-Eskolak gaur amaituko du bere Kultura Astea. 9:30ean, marrazki lehiaketa. Ondoren, jaialdia ikasleentzat.

■ GESTOREN BILERA INFORMATIBOA

AABBeK batzar informatiboa egingo dute. Seber Altuben, 19:00.

■ A.N.I.M.A.L. ETA SODA JAMEN

A.N.I.M.A.L. eta Soda taldeen kontzertua izango da Bergarako Jameretoan, 22:00.

13

larunbata

■ ZINEMA

Scream, 3: 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman.

■ HARROBIAREN AURKA

Mondragoeko talde ekologistak Kobateko harrobiaren aurkako protesta ekintza egingo du. Arbolapetan elkartuko dira, 11:30etan.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Apurtu talde irundarrak kontzertua emango du Gaztetxean, gaur gauean.

■ ANDRE WILLIAMSEN KONTZERTUA

Andre Williams eta Athom Rumba Bergarako Jamen izango dira, 22:00.

14

igandea

■ ZINEMA

Scream 3, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman.

■ ANTON VALVERDEREN EMANALDIA

Anton Valverde musikiari emanaldia eskainiko du Oñatin, XXII. Musikegunak programaren barruan. Santa Ana Antzokian, 19:30.

■ PAUL COLLINS GO-JAMEN

Paul Collinsek emanaldia eskainiko du Bergarako Go-Jamen, 21:00.

15

astelehena

■ ZINEMA

Scream 3, 19:00 - 21:30, Alai zineman.

16

asteartea

■ ZINEMA

Scream 3, 19:00 - 21:30, Alai zineman.

■ MARIANO FERRER MONTERRONEN

"Komunikabideak: irakurketa kritiko" a izeneko hitzaldia eskainiko du Mariano Ferrer Herri Irratiko kazetariak. Monterronen, 19:00.

Corazon de Encinaren X. Kultura Astea

OSTIRALA, 12

19:30 Hitzaldia: emigrazioa.
21:00 Saiheski jana.
23:00 Antzerkia.

LARUNBATA, 13

11:00 Areto futbol torneooa.
13:00 Lehendakariaren agurra.
Extremadurako ardoaren dastaketa.
17:00 Folklore eta musika jaialdia.
22:00 Afaria.
00:30 Dantzaldia.

IGANDEA, 14

11:00 Areto futbol torneoaren finala.
16:00 Mahai-jokoaren finala.
18:30 Elkarteko gazteen emanaldia.
19:30 Play-backa.
20:00 Runba emanaldia.
20:40 Sari banaketa.

Al-Andalusen XI. Kultura Astea

IGANDEA, 14

19:00 Lehendakariaren pregoia. Erreginaren eta damen aukeraketa.
20:15 Alegría de la Sierraren emanaldia.

ASTELEHENA, 15

19:00 Eskulan erakusketa.

ASTEARTEA, 16

18:00 Ume eta gazteen eguna.

ASTEAZKENA, 17

19:00 Gozoen dastaketa eta txokolate jana.

OSTEGUNA, 18

19:30 Nagusiei omenaldia.
Ondoren izango diren ekintzak datorren asteko Arrasate Pressen kontatuko dizkizuegu.

17

asteazkena

■ **TXISTU KONTZERTUA**
Arrasate Musikalek txistu kontzertua eskainiko du. Arrasateko udalbatza aretoan, 19:30.

San Joanetako danborrada

Parte hartu nahi baduzue, hilaren 15etik 17ra izango da izena ematea, San Franziskoko klaustroan. Entseguak 17an hasiko dira, 20:30ean. Entseguetara joatea derrigorrezkoa da danborradan irteteko, eta baita jantziak bueltatzea ere, aldi baterako uzten baitira. Bestalde, umeen entseguak astelehen eta ostegunero dira, 17:30ean.

18

osteguna

■ **ZINE-KLUBA**
Arrazakeriaren inguruko zine-klubak *La Vendedora de Rosas* filma eskainiko du gaur. Amaia antzokian, 21:30.

■ **INDIAZ BERBETAN**
Manuel Diaz jesuitak Indiako Gujarat lurraldeari buruz hitzaldia emango du. Monterronen, 19:00.

■ **KONTZERTUA GO-JAMEN**
Howe Geld-en kontzertua izango da Bergarako Go-Jamen. 21:00.

■ **MUSAKOLAKO ARTISTAK**
Musakolako jaiak direla eta, 13an eta 14an auzoko artisten lanen erakusketa izango da Zigorrolako Erretiratuen Egoitzan.

■ **MARGO ERAKUSKETA CORAZON DE ENCINAN**
Corazon de Encina elkartearen X. Kultura Asteak irauten duen artean, Pedro Quintana margolariaren erakusketa egongo da ikusgai aipatutako elkarte-ko egoitzan.

■ **ARRASATE MUSIKALERAKO MATRIKULAZIOA**
Arrasate Musikalek matrikulazio epea zabaldu du. Hilaren 15etik ekainaren 20ra bitartean egongo da zabalik. Izena emateko: Musika Eskolaren idazkari-tzan, lanegunetan, 17:00-20:00.

■ **PANTICOSARA IRTEERA**
Besaide Mendizale Elkarteak Panticosara irteera antolatu du, Gazte Ekintzaren eskutik. Maiatzaren 20 eta 21ean izango da, eta izena ematea, aldiz, 15 eta 16an.

■ **EKINEN IKASTAROAK**
Eskulan eta dantza ikastaroak eskaintzen ditu Ekin emakume elkarteak. Eskulan ikastaroa astearte-ko izango da, 15:30ean eta 18:00etan. Dantzarena, aldiz, astelehenero, 15:00etan. Izena ematea, 943 77 12 28 telefonoan.

■ **ARKU-TIRO IKASTAROA**
Arkulariak elkarteak arku-tiro ikastaroa antolatu du, maila guztietan. Ostegunero, 19:00-21:00. Izena emateko edo argibideetarako: 94 426 14 68 edo 639 26 63 40.

Debagoieneko komunikazio enpresa batek ZUZENDARI KOMERTZIALA behar du

Enpresaren diru sarreren ardurua osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eraturiko den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketarako gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

DERMATOLOGIA KONTSULTA

Concepción Tamayo Dk.
Jesús Sanpedro Madina Dk.

AZALEKO GAIXOTASUNAK

(Lagun-Aro, IQUIMESA-Adeslas, Diputazioa, Ipresa, Sanitas, Asisa)

LASER

- **FOTODEPILAZIOA**
Emakumezko eta gizonezkoentzat. Ille normala eta hormona arazoan ondoriozkoa tratatzeko
- **MANTXA GORRIAK**
Kouperosia, telangiektasiak, barize finak,...
- **MANTXA MARROIAK**
Adinaren ondorioz eta eguzkiaren eraginez sortutakoak

Kontsulta informatiboa dohainik

Maalako Errabala, 23-2ºA
Tel.: 943 77 05 57
Arrasate-Mondragon

Atzeko Kalea, 6 behea
Tel.: 943 71 61 82
Oñati

astea bi hitzetan

■ **Denon gustuko Sanjoanak**

Bi urteko etenaldiaren ondoren, Arrasateko Udalak jai aurreko ohitura bat berreskuratu du: koadrilekin jai komisia osatzea. Horren helburua ahalik eta gazte gehienen gustuko jai egitaraua osatzea da. Monterronen elkartu ziren joan den asteartean kultura saileko arduradunak eta hainbat koadriletako bozeramaileak; ostegunean, aldiz, herriko elkarteekin batzartu ziren. Koadrilei dagokienez, eztabaida puntu nagusia ekainaren 24an egin nahi den kontzertu bat izan zen. Udalak baliabideak ipiniko ditu, eta gazteek, berriz, taldea aukeratu beharko dute. Aurten jaiak asteburuan tokatzen direnez, ahalik eta jende gehien erakartzeko moduko egitaraua osatu nahi du komisiok.

■ **Drogei aurea hartzen**

Gero eta gazteago hasten da jendea drogak hartzen, Izadi taldeak esan duenez. Hori saihesteko, drogomenpeko-tasunaren prebentzioari buruzko programa bat lantzen dabil San Frantzisko Xabier ikastola. Joan den ostegunean, Izadiko Txus Congilek gurasoentzako hitzaldia eman zuen Ferixalekuan. Bere esanetan, kuriositateak, debekuak edo sentsazio berrien bila ibiltzeak bultza dezake jendea drogak probatzera. Horren aurrean, informazioa da beharrezkoa.

■ **Alkoholzale Anonimoek 25 urte**

Arrasateko Alkoholzale Anonimoen taldeak 25 urte bete ditu. Urteurrena, berrikuntza garrantzitsu batekin batera datorkio elkarte honi: orain arte abadetxean egiten zituzten bilerak, eta hemen-

dik aurrera, Udalak emandako lokal propioa izango dute, Arrasate Pasealekuan. Bestalde, 25 urte bete dituztela eta, hitzaldia egin zuten zapatuan Udaletxean. Elkar-tekoen esanetan, alkoholzale-tasuna oso zabaldua dago Mondragoen, baina taldeko kide askoren bizitzak errotik aldatu dira elkartean daudenetik.

■ **Ikerlanen webgunea**

Ikerlanek goitik behera berriztu du Interneten duen webgunea. Diseinu berria eta eduki osoagoak eskaintzen ditu orain. Diseinu lanak Mondragoeko Danka enpresak egin dizkio.

Ikertegia, eskaintza, proiektuak, argitalpenak eta albisteak dira orriko atalak. Oraingoz gaztelania bakarrik erabiltzen du. Bi aste barru, euskaraz ere jarriko da. Helbidea: www.ikerlan.es

■ **Mugi gorputza!**

Asteartean hasi ziren Ekin emakume taldeak urtero antolatzen dituen dantza ikastaroak. Aurten, 15 emakume inguruk eman dute izena. Hilabetez ibiliko dira saltsa, cha-cha-cha edo rockaren doinuekin gorputza mugitzen ikasten, nahiz eta ikasle gehienek gogokoena saltsa erritmoak diren. Natalio Maiztegi oñatiarra izango da irakaslea, eta bere esanetan, urtero emakume berberak aritzen dira ikasten, beraz, hastapen maila ondo gaudituta dute.



“Oraindik asko gelditzen da egiteko. “Etnia 2000”n arazo gehiago eta konponbide gehiago aurkezten ditugu. Iritzia sortu nahi dugu eta jendea bere kabuz aritzea. Segi zirikatzen”.

EKON

El Tubo
(2000ko apirila)

HIES BERRIA

Tel.: 943 79 26 99



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Aurrezki zabala

EUSKADIKO KUTXA



Eperako aurrezkian lasaitasuna ematen dizugu

Errentagarritasun eta erabilgarritasun handia


Aurrezki Zabalaren ezaugarri nagusiak

- Epea: 3 edo 5 urte.
- Errentagarritasuna: bermatua epe osoan, nahiz eta merkatuko interes-tasek behera egin.
- Errentagarritasuna: urtean kapitalaren %25eraino erabiltzeko aukera, gasturik eta komisiorik ordaindu gabe eta ordaintzeke dauden interesak jasota.
- Fiskaltasuna: 1999ko erreforma fiskala hobetu zenetik, mozkinen %18ko atxikipena.
- Interesen aldizkakotasuna aukeratzeko egokiera: hilean, hiru hilean edo urtean behin.

Aurrezki Zabalari buruz gehiago jakin nahi baduzu, deitu **Telebankara** (901 333 444), etorri Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletara edo bisitatu gure **web orrialdea** (www.cajalaboral.es).

Zurekin konprometitzen gara

Hausnartzeko 15 egun ematen dizkizugu, nahi izanez gero eragiketa baliogabe dezazun.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

400 lanpostu gehiago

Aurreikusten zena baino ia 400 lanpostu berri gehiago sortu ditu Fagor Elektratresnak 1999. urtean. Hori jakinarazi zuten asteartean egindako Batzar Orokorrean. Era berean, beste 461 langile bazkide egin dituztela ere adierazi zuten.

Pasa den urteko emaitza ekonomikoak ere jakinarazi ziren: 4.670 milioi pezetako errentagarritasuna lortu zuen iaz Fagorrek. Izan ere, 118.750.000 milioi pezetako salmentak izan zituen barne eta kanpo-merkatuan. Barne merkatua %30 igo zen eta kanpo-merkatua, berriz, %17.

2000. urterako barne- eta kanpo-salmentak igotzea da helburu nagusia. 44.000 milioi pezetako kanpo-salmentak



1.700 bat bazkide elkartu zen Batzar Orokorrean.

espero dituzte eta 80.000 milioitako barne-salmentak.

Inbertsioetan, 4.567 milioikoak aurreikusten dira. Kooperatibaren plan estrategikoa abian jartzen denean inbertsioak igo egin daitez-

keela ere ondorioztatu zen.

2000. urtean 3.800 milioi pezetako emaitza eta 195 lanpostu gehiago sortzea espero du Fagorrek. Gainera, kontseilu sozialak 200 langile bazkide egitea erabaki zuen apirilean.

Hilketaren gaitzespena



Jose Luis Lopez de la Calle-ren hilketak hemen ere utzi zuen aztarnarik. Domekan bilkura izan zen Herriko Plazan hilketa gaitzetzeko. Astelehen eguerdian ere horrela egin zen. EAJ-EA, PSE-EE eta EBko zinegotziak eta hainbat

herritar gerturatu ziren plazara. Udalean, Gobernu Batzordean gaitzespen testu bat aurkeztu eta adostu zuten EAJ-EAK eta EBk. EH abstenuitu egin zen. 20:00etan, Gestio por la Pazek deituta beste bilkura bat egin zen.

Autobusa adjudikatuko da

Datorren maiatzaren 18an hila honi dagokion udalbatzara egingo da. Dagoeneko aurreikusita dauden gaien artean, Arrasateko hiri-autobusaren zerbitzua zein enpresak beteko duen jakinaraziko da. Hiru izango dira lehian arituko diren enpresak, eta dirudienek, hiru hauen artean Pesa enpresa gipuzkoarra dago. Zerbitzuak urteko 28 milioiko aurrekontua izango du, bi autobus egongo dira eta bakoitzean 45 lagunentzako tokia.

Pabilioiak altuago

Markuleteko eta Kataideko industriaguneetako pabilioiak altuagoak izan daitezke. Hori erabaki du aste honetako Gobernu Batzordeak.

Kataideko industria-pabilioie dagokienez, 12 metrotik 18 metrora pasatu da baimendutako altuera. Markulete, berriz, 12 metrotik 20ra. Bigarren kasu honetan, gainera, beste aldaketa bat ere egin da: hemendik aurrera, ez da izango derrigorrezkoa industria-pabilioia eta lurzatiaren mugaren artean tartea uztea.

Altuerari dagokienez, materiala bertikalki biltegitartzeko beharra duten lantegiek izango dute bakarrik 18 edo 20 metroko altuera.

Presoen alde

Joan den barikuan hasita, Mondragoeko presoen aldeko kanpaina berezi bati ekin zaio Amnistiaren Aldeko Batzordearen ekimenez. Aste honetan, astelehenean, Zigorrolan, San Andresen eta Herriko Plazan kale bilkurak egin dira. Asteartean, berriz, asteroko kartelada egin zen Seber Altube plazan. Eta gaur bilkura izan da plaza berean.

Datorren astean, bestalde, errepikatu egingo dira ekimenak. Eta halaxe egiten segituko da, presoen egoerak bere horretan segitzen duen artean.



ikazoka 00 merkatu plazan
 hezkuntza eta berrikuntza **azoka** Maiatzaren 18tik 21era **DURANGO**

ordutegia: ostegunetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara igandea 10:00etatik 14:00etara

Etxaluzetik Zaldusperainoko berrantolaketa


Udaleko Hirigintza Sailak Cerrajeraren urbanizazioaren berrantolaketa lantzen ibili da eta idatzitako txostena jendaurrean jarri du. Orain, Hirigintza Batzordearen txostenari alegazioak aurkezteko epea zabaldu da. Hilabete inguru pasa ondoren, Hirigintza Sailak aurkeztutako proiektua eta herritarrek jarritako alegazioak aztertuko ditu Udalak. Horren arabera erabakiko dira Cerrajerako urbanizazio lanen behin betiko proiektua idazteko irizpideak.

Etxaluzetik Zaldusperainoko zatia aztertu du Hirigintza Sailak txostenean. Guztira, 149.785 m².

Lurzati horretan 312 etxebizitza eraikiko dira, eta jakina, inguru guztia txukunduko da.

LEHENENGOA ANTZERA

Urtarrilean jakinarazi genuenez, Cerrajerako urbanizazio lanen lehenengo zatia hasita dago (San Andresetik Cerrajerako erlojuraino heltzen



dena). Hirigintzak egindako txosten berriaren arabera, ezer gutxi aldatuko da gune horretan. Adibidez, Etxaluze inguruan, Maiatzaren 1 plazaren ondoan, autobus geltoki bat ipintzea egoki ikusten du Hirigintzak. Eraikitzen hasita dauden 220 etxebizitzak, bestalde, bere horretan segituko dutela ere adierazi du txostenean.

Erlojutik aurrerako zatian, berriz, hasieran zeuden asmoekin konparatuz, aldaketa dezente aurkeztu ditu Hirigintzak. Hasteko, erlojuaren

eraikina botatzea proposatzen du, bertan gune berde bat egiteko. Zaldusperantz segituz, babes ofizialeko 92 etxebizitza eraikiko dira aurreikusita zegoen moduan, eta baita herriaren erabilerarako izango diren hainbat eraikin ere. Era berean, Gorosamendi inguruan, baserrietara joateko bidegorri bat egitea ere proposatu du.

Ospitale eta Anbulatorio inguruan, berriz, orain bi ospitaleek faltan dituzten instalazioak egitea egokia dela uste du Hirigintza Sailak.

Bestelako asmoei dagoenikenez, bidegorri bat egitea proposatu da, baita Deba ibaiaren ondotik joango den oinezkoentzako pasealeku bat ere. Era berean, trenbide zaharra oinezkoen erabilerarako izatea aurreikusi du Hirigintzak.

Horrekin batera bulegoak eta antzekoak kokatzeko gune bat ere gordeko da.

Baina, hau dena, esan bezala, ideiekin gauzatutako txosten bat besterik ez da. Ziurrenik aldaketa bat baino gehiago izango ditu gerora.

Harrobien aurkako ekimenak

Mondragoeko ekologista taldeak harrobien aurkako kanpaina antolatu du. Irteerak egingo dira hiru harrobietara eta bakoitzaren arazoak esplikatuko zaie gerturatzen diren interesatuei. Kanpaina amaitzeko, hiru harrobiak lotuko dituen ibilaldia antolatuko da.

Datorren larunbaterako egin du deialdia ekologista taldeak. Goizeko 11:30etan Arbolapetan elkartu eta Kobaterako bidea hartuko dute. Han informazioa eman eta harrobiaren itxiera eskatzeko protesta-ekintza egingo da.

Bost dira Kobate harrobia itxeko ekologistek eman dituzten arrazoiak :

- "Jarduera jasangaitz, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei" buruzko Araudiaren 4. artikuluan esaten denez, harrobiak biztanle-gune hurbilenetik 2.000 metrora baka-rik kokatu ahal izango direla.

- Jarduera horrek izugarri kaltetzen duela Garagartzako bizimodua. Auzotarrak ere gogaituta daudela egoera salatzeaz.

- Kobate erreka izugarri hondatzen dela.

- Arrisku larrian jartzen dituela Paleolitiko ertaineko-ko Leze Txikiko aztarnak.

- Behin eta berriro haus-ten dela legeria.

Portugaldarrak Antoñara

Ospitale inguruan lau urte igaro ondoren, pasa den asteaz geroztik Antoñan dute bizilekua Zalduspeko bi familiek. Aurrefabrikatutako sei eraikin prestatu die udalak. Familia bakoitzak bi eraikin ditu: bata bainugela eta bestea egongela. Eraikin bakoitzak, berriz, 18 m² ditu.

Baina bizitoki berria aldi baterako izango da. Udalak nomadentzako kanpalekua egingo du Meatzerrekan. Hori zabaltzean bi familiak hara pasako dira, ez badute etxebizitzarik errentan lortzen.

Orain, Meatzerrekako kanpalekuaren aurreproiek-



tua jendaurrean dago, alegazioak jasotzeko; ondoren, behin betiko proiektua idaztea falta da eta foru aldundiaren onespina jasotzea. Beraz, badirudi portugaldarrek denbora dezente egin- goko dutela Antoñan.

ARANTZAZU, PRESSEKO AZALEAN



Begira zelako musua jarri zuen Arantzazu Lagunillak, ARKO-ko publizista eta aurkezleak, bere lankideen ezustekoa ikusi zuenean. Joan den ostiralean egindako despedidan izan zen hori. Ezkondu egin behar zaigula eta, zorionik bero-beroenak, bikote!



Eguraldi ona, umore bikaina, jai giroa... Ezeren faltan ez ziren egon Atxorrotx eguna ospatzera mendira igo ziren eskoriatzarrak. Ehunka bildu ziren mendi magalean, eta taberna, nola ez, gainezka.



Zazpi lurraldeetako euskaltzale ugari bildu zen Aramaion, artean Gotzon Garate euskal filologoa. Euskalkiak ikertzen ibili zen Gotzon hainbat baserritan, eta horietako familiak urteroko elkartzea erabaki zuten. Aurten, seigarren bilera izan dute.



61eko KINTOAK

Joan den asteburuan 61eko kintoek, 1940an jaiotakoek, urteroko bilera egin zuten. San Frantzisko elizan meza izan ondoren, bazkaltzera joan ziren. Baina aurretik, taldeko erretratu hau ateratzen utzi ziguten.

arrasate
musikal

AM

Matrikulazio epea zabalik

(Plaza mugatuak)

Maiatzaren 15etik ekainaren 20 arte
arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara



Musika ikasteko ez dago adinik

Adina: 4 urtetatik aurrera (Helduentzako talde bereziak) • Argibideak: Musika Eskolaren idazkaritzan, lanegunetan.
Nafarroa Etorbidea z/q • ARRASATE • Tel: 943 79 06 83 / 943 77 05 40

Goi mailetako futbolari



azko denboraldiko Arrasateko ohorezko infantilak, Real Sociedad taldeko ohorezko infantilaren aurka jokatuakoa neurketan.

Futbola dirutza izugarria mugitzen duen aspaldiko kirola da, eta futbolariak egunero telebistan ikusten ditugun gizaki jainkotuak. Hala ere, lehen mailan jokatzeko bide luzea jorratu behar da, eta oztopoz betetako bide hori ez da egunero telebistan azaltzen. Erreportaia honen bidez Arrasateko futbolari gazteak ezagutuko ditugu, orain arteko jarraipena egin eta beraien ametsetan murgiltzeko asmoz.

JOKALARI GAZTEENAK


Beste hauetaz gain, jokalaria gazteagoak ere badaude, eta orain ikasketetan pentsatzen badute ere, futbolean izan dezakete aukerarik, nahiz eta ezer iragartzeko goiz den arren.

Jokalaria hauek izanda, zera galdetzen diot neure buruari: Nork behar du atzerritarrik euskal taldeetan?



JULEN ZAITEGI

- 14 urte.
 - Errealeko Ohorezko kadete maila.
 - Aurrelaria.
 - Ikasketak: DBHko 3.mailan.
 - Esperientzia politena: Canal+eko torneoa.
- "Futbol kontuez hitz egiteko oraindik goiz da".**



MIKEL GONZALEZ

- 15 urte.
 - Errealeko Ohorezko kadete maila.
 - Atzelaria.
 - Ikasketak: DBHko 3.mailan.
 - Esperientzia politena: Canal+eko torneoa.
- "Ez da erraza izango gazte mailara igotzea, baina esperantza ez da inoiz galtzen".**



ANDRES CASTILLEJO

- 15 urte
 - Errealeko bigarren urteko kadeteak.
 - Erdilaria.
 - Ikasketak: DBHko 3.mailan.
- "Momentu politena, ligak txapeldun izan ginenekoa".**

gazteak

Mondragoek beti izan du futbole-rako joera berezia, eta herri honek beti izan ditu futbolari onak. Kirol honen fruituak zeintzuk diren ikustera ohituak gaude jada, baina asko landatu behar da fruitu horiek batzeko. Gaur egungo futbola hautsezinak diren klausuletan eta milioi askoko fitxaketetan oinarritzen da, baina kirol hau hori guztia baino askoz gehiago ere bada, eta horretaz jabetzeko futbolari gazte baten begietara begiratzea besterik ez dago. Arrasaten futbolari asko dagoen arren, lehen mailetakoz azipi-

ko taldeetan jokatzen dutenak ez dira horrenbeste, baina daukenez zeresan handia daukela erakutsi dute.

KANPORA JOAN BEHAR

Askotan ez dira gazteak nahi bezala irteten eta aukera zuzena etorri beharrean, zuk irteten behar izaten duzu aukera bila. Hori da Oskar Santor "Golo" eta Lazaro Olivenza gazteei


gertatu zaiena. "Golo" Mondran hasi zen futbolean, eta 3.mailan debutatu ondoren, etxeko taldea preferente mailara nola jaitsi zen ikustea tokatu zitzaion. Eibarrek zerbait ikusi zuen jokalaria gazte hartan, eta bertan Bigarren A mailan jokatzerira iritsi zen. Ondoren, Badajoz taldeak eskaintza polita egin zion eta onartu egin zuen. Hala ere ber-

tan ez du zorte handirik izan eta larregi jokatu gabe Tarra-sa taldera utzita joan da. Orain pozik dabil, balio duena erakusteko aukerarik badaukalako eta berak dioenez, hori da garrantzitsua.

Lazaro Olivenza ere Mondrako infantiletan hasi zen lehen ostikoak ematen eta Errealak berehala fitxatu zuen. Donostian zazpi urte igaro ondoren, Turin taldera joan zen. Gaur egun Logroñes taldean jokatzen du 3.mailan, baina goiko taldearekin entrenatzea ere tokatu zaio.


Futboleko jokatzearaz gain, psikologia ari da ikasten, baina aitortzen duenez, momen-

"Aukera izanez gero, Hegoaldeko talde batera gustura joango nintzateke, bertan ederto kobratzen baita"




ASIER SANCHEZ

- 14 urte.
- Errealeko infantil maila.
- Aurrelaria (30 gol daramatza denboraldi honetan)
- Ikasketak: DBHko 2.mailan
- Esperientzia politena: Canal+eko torneoa.




JOSU ETXEBERRIA

- 14 urte.
- Errealeko infantil maila.
- Erdilaria.
- Ikasketak: DBHko 2.maila.
- "Garrantzi handia ematen diot futbolari, baina horretatik bizitza gaur egun oso zaila da".




ANDONI ANDRES

- 14 urte.
- Errealeko infantil maila.
- Ikasketak: DBHko 2.maila.
- Esperientzia politena: Canal+eko torneoa.



ROBERTO ALONSO

- 14 urte
- Errealeko Ohorezko kadete maila.
- Ikasketak: DBHko 2.mailan.



Oscar Santor, "Golo".


tuz futbolak pisu handiagoa dauka bere bizitzan. Momentu latzak ere pasatu ditu Logroñesen, taldea arazo ekonomikoak direla eta desagertzearegion baita; "Egun gogorrak izan ziren, futboleantentsatu beharrean, etxera esku-huttsik bueltatu beharko duzula pentsatzen baituztu, ezer kobratu gabe".

Urtzi Amianok ere ez du zorte handirik izan azken bi urteotan. Errealeko atezain titularraren izan zen zortzi urtez, baina Sansera salto egitean zorteak bizkarra eman zion. Aurreko denboraldian Trintxerpen jokatzeo baimena eman zion Errealak, baina denboraldi honetarako berriz ere talde donostiarrak berreskuratu egin du, nahiz eta ez duen aukera handirik izan.

Hiru jokalariren hauen ametsa lehen mailan jokatzea bada ere, ez dute derrigorrezkotzat jotzen, bigarren mailak ere bizitzeko ematen baitu.

GAZTE MAILAKO HIRUKOTEA

Hirukote honek ere Mondra taldean egin zituen hasierako urteak, baina lehen pausoa David Espinosak eman zuen. Kadete mailan Athletic



Urtzi Amiano.

taldean izan zen, eta jokalariren artean zegoen harremana da Davidek azpimarratzen duena. Erresidentzia batean egon zen urte hartan, eta denboraldia amaitutakoan Alaveseko probetara aurkeztu zen Jon Lasagabaster eta Iker Lazpiurrekin batera. Davidek eta Jonek Alaveseko gazte mailan jokatu dute aurtengo denboraldia, nahiz eta Jonek ez duen zorte handirik izan, denbora luzez lesionaturik egon da eta.

Iker Lazpiurere Alaveseko probetara aurkeztu zen, baina azken momentuan Errealak deitu eta ez zuen dudu izpirik izan. Denboraldi honetan Errealeko gazte mailan jokatu du, baina futbola hobby bezala ikusten du: "denbora asko kentzen duen hobbya da".

Arrasate, egia esan behar badugu, denetik urrun geratzen da, eta jokalariren gazte hauek Gasteiz edo Donostiara joan behar izaten dute ia egunero entrenatzera. Gazte mailan, Errealak pisu batzuk eskaintzen dizkie jokalariren gazte hauei, eta bertatik pasatu izan dira Bon-

HERRIAN BIZITZEAREN DESABANTAILA

Arrasate, egia esan behar badugu, denetik urrun geratzen da, eta jokalariren gazte hauek Gasteiz edo Donostiara joan behar izaten dute ia egunero entrenatzera. Gazte mailan, Errealak pisu batzuk eskaintzen dizkie jokalariren gazte hauei, eta bertatik pasatu izan dira Bon-



Lazaro Olivenza.

ba, Aranzabal edo Barkero bezalako jokalaririk. Hala ere, kanpoan bizi diren bakarrak Urtzi Amiano, "Golo" eta Lazaro dira eta gainontzekoak mikrobusean edo kotxeetan joaten dira Donostia edo Gasteizera.

Iker Lazpiurrek izan du

aukerarik aurten pisu batean sartzeko, baina berak dienez oraindik goiz da etxetik irtezteko. Astean lau entrenamendu izaten ditu, eta honi asteburuko partida gehitzen badiogu, guztira 1.400 kilometro dira hilean, 40 ordu baino gehiago gora eta behera, aste osoan bete beharreko lanorduen antzera.

Alavesen jokatzen duen bikoteak autoz egiten ditu buelta guztiak, eta astean hiru entrenamendu izaten dituzte, hauek ere kilometro mordoak egiten dute. Esan bezala, desabantaila asko, baina futbol nahiak esfortzu guztiak txiki uzten ditu. ■

Xabier Urzelai



Jon Lasagabaster, David Espinosa eta Iker Lazpiur.

Musakolako jaiak



Maiazak
12
ostirala

- 10:00 Kanpai errepika
- 10:15 Haurrentzako kirol jokoak
- 10:30 Tanborrada
- 16:00 Jubilatuentzako bolo txapelketa
- 17:00 Herri merienda haurrentzat
- 19:00 Ikurrina igotzea
- 19:30 Jai afaria jubilatuentzat
- 23:00 Kontzertua ANGER, ISKANBILA, DESKONTROL
- 00:00 WOOD-BY-SER, BER-TA-TIK, BER-TA-RA.


**HOSTAL
MUSAKOLA**
Taberna - Jatetxea
Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50


KAT@IDE
JATETXEA
Plater konbinatuak eta
otartekoak
Kataide industrialdea, 10 bis
Tel.: 943 79 60 10 / 943 77 10 80

**ZIORLA
TABERNA**
Antso Abarka, 5
Tel.: 943 79 20 46


**Estrella
Taberna**
Elkano, 3
Tel.: 943 79 20 82

**ILUNA
taberna**

Elkano, 23
Tfnoa.943 79 23 78

BEBERLY
Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 943 79 16 99


AL ANDALUS
KULTURA ELKARTEA
Zigorrola, 1
Tel.: 943 77 03 28 (Elkartea)
943 79 91 82 (Taberna)

**JEY
JULIWER**
Elkano kalea, 36
Tel.: 943 79 22 11

Zator!
**TXINATO
KAFETEGIA**
Elkano kalea, 9
Tel.: 943 79 20 95

**MENETA
TABERNA**
ZVRE ETXEAN BEZALA
Gipuzkoa Etorbidea, 48
Tel.: 943 79 65 31

**IOSU
KAFETEGIA**
Elkano kalea, 25
Tel.: 943 77 03 66

**JUBILATUEN
ELKARTEA**
Gipuzkoa Etorbidea,45
Tel.: 943 77 12 66

MUSAKOLAKO

Maiatzak
larunbaita
13

Foto Flass
Ordubetean
Eroski merkatal gunea
Tel.: 943 77 19 54

- 10:00 Buruhandi eta gaiteroen irteera
- 11:00 Pilota partiduak
- 12:00 Herri txikiteoa soinu-joleekin
- 13:30 Urrezko astokilo banaketa
- 14:00 Manifestazioa
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:00 IX Xake Irekia
- 16:30 - 19:30 Txabaxkokoia
- 17:00 Kalejira herrikoia
- 18:00 San Isidro Sokatira sari nagusia
- 19:30 Buruhandi eta gaiteroen irteera
- 23:00 Berbena. IRAILERAKO 6 taldearekin.
- 23:00 Berbena San Isidro eliza ondoan KAIXO taldearekin.

HIPER EROSKI
KAFETEGIA
JÄTETXEÄ
Eguneroko menua
Musakola Pol. z/g • Tel.: 943 79 55 69

NEKER c.b.
Bainuak • Berogintza • Gasa
Elkano, 40
Tel./Faxa: 943 79 89 67
Tel. mugikorra: 629 49 00 24

KORTABERRI
Harategia Urdaitegia
Antso Abarka, 3
Tel.: 943 79 20 28

ELECTRICIDAD
MUSAKOLA
Antso Abarka, 5 etxebaia
ARRASATE
Tel.: 943 79 39 22
Tel. mugikorra: 607 22 54 28

ARRASATE
Electricidad
INSTALAKUNTZA ETA
MUNTATZE ELEKTRIKOAK
• Argizatze profesionala
• Diseinuzko argizatzea
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etorb. 37 • Tel./Fax: 943 79 65 93

EGIA
Iturgintza
ERAKUSKETA:
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
ARRASATE • Tel.: 943 77 01 85

Rafa
• Giltzen kopiak • Oinetako konponketa • Artazi, laban eta abarren zorrozketak eta salmenta • Larruzko artikulak • Pantografo bidezko grabaketak • Serrailgintza (irekitze, salmenta eta instalazioak)
Eroski merkataritza gunea, 1 • Tel.: 943 79 76 03

arregl@s
• Arropa • Soinekogintza
• Larrua eta dama • Bordatuak
• Puntua • Goi mailako joskintza
• Errezelgintza • Garbitegia
Eroski merkataritza gunea
Tel.: 943 79 10 43

Lasagabaster
HARATEGIA
Gipuzkoa etorbidea, 33
Tel.: 943 79 16 86

Leniz Motor
Baso, lorategi eta nekazaritzarako tresnak
STIHL
Gipuzkoa etorb., 9 • Tel.: 943 79 11 78

PEUGEOT **GILERA**
MOTOR SALMENTA ETA KONPONKETA
Leniz Motor
Gipuzkoa etorb., 9 • Tel.: 943 79 11 78

PRENTSA
TXOKOA
Eroski merkatal gunea

IRALA
BITXITEGIA
San Isidro jai zoriontsuak izan!
Eroski Merkataritza gunea
Tel.: 943 79 36 47

Jaia

Marrazak
14

00 Eguzki eta eguraldi ona
00 Txikiteoa hasteko dago
30 Gimnasia erritniko
erakustaldia
30 Txikiteoa
00 Herri kirolak
30 Dantzaldia KINU
taldearekin
00 Azken trakak. Suzko
errubarak.

IMANOL

- Iturgintza • Berogintza •
- Gasak • Bainuak •

Kale Txiki, 9 behea
Tel.: 943 79 05 95

MEKA-HOTEL

EKOIZLEAK GARA
Lanefako jantziak
(Industria eta hostalaritza)
Eskolako uniformeak
Elixerako osagarriak
Serigrafia eta bordatuak

Eroski merkatal zentrua
Tel./Fax.: 943 77 19 44

Zigarrola

Joko aretoa

Bolibar doktorea, 1
Tel.: 943 79 60 72

J. Elorza

**Harategia
Urdaitegia**

Joan Bengoa, 1
Tel.: 943 79 75 80




HARATEGIA • URDAITEGIA
Maisu Aranbarri, 2
Tel.: 943 79 29 14



**AGRIZENTROA
OTXOA, S.L.
BANAKETAK**

Musakola Industrialdea 2
Tel.: 943 79 17 79

BEGOÑA

Lurrindegia • Drogeria

Gipuzkoa etorbidea, 33
Tel.: 943 79 03 73

ARRASATE

**TOURLINE
EXPRESS**

79 69 99

**Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA**

San Isidro jai zoriontsuak izan!

Santa Teresa, 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 20 38
943 79 44 47

Etxebarri auzoa, z/g
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 79 00

Eskolan eta
auzoan festa
eta jai giroan...

Euskara beti ahoan!



Elkano, 10 • Tel.: 943 79 04 49

Cerrajerak eraiki zuten Zigorrolako ermita

San Isidroetan ezinbestekoa da Zigorrola aldera joztea. Auzoko zaindariaren egunean auzoko jaiak ospatu ohi dira eta horixe da asteburuan egingo dena.

Auzoko zaindaria gordezten den lekua izango da oraingoan atal honetako protagonista: San Isidro eliza.

1945. urteko maiatzaren 15ean inauguratu zen Union Cerrajeraren ekimenez. 1901. urtean hasita, etxebizitza asko egin ziren Zigorrola auzoan, lehenengoak Cerrajerarenak. Hainbat baserri bota behar izan ziren horretarako: Zigarrola Azpikua (1901. urtean), Zigarrola Gañekua (1964an) eta Bidekurtze Gain eta Itsas Ondo (1966an).

Etxebizitza berriekin jendea ere ugartu egin zen auzoan eta 1923. urteko maiatzaren 15ean "Escuela Unitarioa" inauguratu zen auzoko haurrentzat. Elisa Lasa andereñoak hartu zuten eskolaren ardura. Inaugurazio egunean, ospakizun bazkaria egin zen eta han erabaki zen ordutik aurrera San Isidro izango zela auzoko zaindaria.

Egun hartan auzoko zaindariari ermita edo eliza bat eraiki behar zitzaiola erabaki zen. 1929an, bestalde, Emilia Narvaiza eta Francisca Erguin, Antonio Armengou mazzakilaria-rengana joan ziren San Isidoren irudirik ez zegoela eta, baten eske. Mazzakilaria pozik asko egin zuten mazzakia. Gaur egun San Isidro elkartearen dago.

Irudia eta ermita egiteko nahia bazebilen, beraz, bueltaka. Azkenean, Cerrajera izan zen ermitaren bul-



1945eko inaugurazio egunean zaindariaren irudia sartu zuten ermitan.

tzatzailea. 1943an hartu zen erabaki hori. Orduantxe eman ziren Cerrajeraren etxetako aurreneko hogeitaz giltzak. Han biziko ziren auzotarren erlijio-beharrak asetzeko eta auzoan bueltaka zebilen nahiari kasu eginez, eliza berria eraikitzea erabaki zuten Union Cerrajerak.

ZIGARROLA AZPIKUA KOKAGUNE

Zigarrola Azpikua baserriaren ortuetan eraiki zen eliza. Aipatutako baserria, esan bezala, 1901. urtean bota zen eta han Empresa Cerrajera Guipuz-

koana eraiki zen. 1910. urtean, enpresa hau Vergara-Jauregi Resusta y Cía izenekoarekin batu zen eta orain ezagutzen dugun Union Cerrajera sortu. Ondorioz, Zigorrolako lantegiaren ekialdeko erakina biltegi moduan erabiltzen hasi ziren. Hantxe egin zen San Isidro eliza.

Luis Astiazaran Galarza arkitektuak idatzi zuen ermitaren proiektua, 1944. urtean. Urte berean hasi ziren lanak. Kanpotik eta barrutik lehengo eraikinaren itxura gorde zen eta orain ikusten den kanpandorra gehitu zitzaion. Era

berean, sakristia eta elizaurrea ere eraiki ziren. Sarrean dagoen ate erromanikoa, berriz, Tolosako parrokiaren erredura egin zen.


Aldarea, portada, santuaren tokia eta santuaren irudia bera, Francisco Letamendiak egin zituen. Elizaurreko, aldareko eta argileihoko dekorazio mazzakia, bestalde, Jesus Arraizek egin zituen; baita margotze eta polikromatze lanak ere.

Elizaren jarlekuak Patricio Osinagak egindakoak dira eta lurzolan dauden harlauzak, berriz, Billabonako harrobitik ekarri ziren. 1968. urteko abuztuan, liturgia arau berriak segituz, aldare berria egin zen, elizterre begira.

Eta halaxe geratu zen orain ezagutzen dugun itxurarekin, San Isidro eliza: ezaguna eta esanguratsua inguruetan.

Informazio iturria:

San Isidro elizak Union Cerrajerari eskaini zion liburusk.





Segurtasun eta aldakortasun handiagoa



Ford focus auto familiarra bezala dago diseinatua eta horregatik bere ezaugarri nagusiena **segurtasuna** da.

Umeentzako jarlekuak ergonomikoki diseinatuak daude zure familiari **babesa** emateko eta **bidaia lasai** asko egiteko.

kargarako tokia hobeto betetzeko sistema desberdinak diseinatu ditugu, **kalitate** maila altuagoa lortzeko frogatuak daudenak.

16i-100 cv 1.975.000 pta.tik hasita

tdi- 90 cv 2.175.000 pta.tik hasita

(Kanpaina Plana eta Prever Plana barne)

MUGARRI



DEBAGOIENKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

IGNACIO JIMENO (PSE-EEKO ZINEGOTZI OHIA)

“Zaila da hemen sozialis

Iruñearra da, Goi Mailako Ingeniaritzako ikasketak egin zituen Bilbon eta bukatu zuenetik Eskola Politeknikoan eskolak ematen aritu da, matematika eta termodinamika irakatsiz. Baina Mondragoen, irakasle aritzeagatik baino, are ezagunagoa da politikan jarduteagatik. Alderdi komunistako ideiazatetik, Euskadiko Ezkerrako kide izatera pasatu zen, eta alderdi sozialista da bere oraingo alderdia. PSE-EEko zinegotzi izan da, pasa den maiatzean kargua utzi arte. Ingurumenaz arduratu izan da tarte horretan.

— Urtebete da kargu publikoa utzi zenuela, asko aldatu da zure bizimodua?

— Kargu publikoa uzteaz gain, hemengo alderdikideekin harremana ere moztu nuen. Mondragoeko alderdikideekin ez nintzen ondo konpontzen. Hala ere, PSE-EEren barruan

segitzen dut lanean ingurumenaz arduratzen den batzorde batean, Euskal Herri mailan. Eskolan, irakasgai berri bat prestatu dut aurten, beste irakasle batzuekin: Ingurumen Ingeniaritza. Ideia da Ingeniaritza barruan Ingurumena lantzeko espezialitate bat sortzea.

Hamar-hamaika ordu sartzen ditut hemen egunero. Energia interesatzen zait bereziki energia berriztagarriak, eta horiek lantzen nabil. Beraz, orain Mondragoen ez dut inolako harreman politikorik. Irakasle moduan, berriz, oso lanpetuta nabil, pozik.

— Nola ikusten duzu Arrasateko alderdi sozialista?

— Mondragoen oso zaila da sozialista izatea. Alderdi sozialistak bere estatutu eta kongresuetan oso argi ipini ditu beti asmoak,

ideiak... baina gero hori praktikan ez da betetzen. Adibidez: gu, PSE-EEren estatutuen arabera, berez Euskadizaleak gara, baina gero hori ez da alderdiaren jardunean islatzen.

Kontua da, bailara honetan behintzat, PSE-EEko goi kargu gehienak, zuzendaritza kasu, Euskadin jaio ez direnek betetzen dituztela eta hori epe luze-
ra igarri egiten da.


— Zerbait esango zenioke Mondragoeko taldeari?

— Alderdikide batzuk joan egin beharko lirakeela.

— Alderdi sozialistan aldatu asko egiten dabilta. Zer iruditzen zaizu? (Odon Elorza, Rosa Diez...)

— Oso ados nago Odon Elorzarekin, gustatzen zait. Rosa Diez ere gustuko dut, pertsona jatorra da. Estatuan lan ona egingo duela uste dut; hori bai, Euskadira-ko behar dugun sentsibilitatea ez da Rosa Diezena. Euska-

“PSE-EEko goi kargu gehienak Euskadin jaio ez direnek betetzen dituzte eta hori epe luze-
ra igarri egiten da”



ista izatea”

di, Euskadi da, eta hemengo pertsonak behar ditu, batez ere.

— Aste Santuan gertatutakoari buruz, zer diozu?

— Indarkeriarekin ez goazela inora: Alderdi guztiak kutsatzen ditu. Alderdi bakoitzak egin beharreko lan guztia baldintzatzen du. Hitz egiten segitu behar dugula uste dut.

Argi dago, jende berria behar dela alderdi guztietan, jende gaztea. Politikari askok urte larregi daramatzate politikagintzan.

— Eta etorkizuna?

— Izatez, baikorra naiz. Oraingo egoerak, baina, modu ezkorrean pentsarazten dit.

Ehk, Eak eta PSE-EEk alderdi sozialista bakarra eratu beharko lukete, nire ustez. Herritarren zati handi bat batuko lukeen alderdia litzateke, eta hori da orain behar dena. Jakina, oraingo egoeran hori lortzea ezinezkoa da, 10-15 bat urte beharko lirerateke, bi belaunaldi; egoera baretzeko astia behar da.

— Eskola Politeknikoko irakasle izanda, nolatan politikan?

— Francoren garaian sartu nintzen, gauzak aldatzeko beharrak eraginda. Politika betidanik interesatu izan zait.

— Eskola Politeknikoan hasi zinenetik orain artekoak ikusita, nola aldatu dira gauzak? Etorkizuna?

— MUren barruan beste unibertsitate bat eraikitzeko-tan gabiltza, inbertsio handia

izango du eta baita ikasle eta ikertzaile ugari ere. Erronka handia da eta horretan ari gara. 9 urte geratzen zaizkit erretiratu baino lehen eta unibertsitate berriaren prestakuntzan murgilduta emango ditut urte horiek, eta jakina, baita ingurumenarekin lotutako gaiak lantzen ere.

— Ingurumenari dagokionez, munduaren osasuna larria dela diote adituek...

— Egoera oso delikatu dela uste dut, eta horregatik ari gara unibertsitatean espezialitate berri bat eskaini nahian. Ingeniari berriak behar dira orain, ingurumena zaintzeko prestakuntza akademikoa dutenak: kutsadura gutxitzen dakitena, energia berriztagarriak... Parke eolikoei buruz, adibidez, berba asko egiten da, baina jendeak ezer gutxi daki.

— Elgeakoa da EAEko lehenengo zentral eolikoa; zer diozu?

— Niri haize-errotak eta aerosorgailuak izugarri gusztatzen zaizkit, politikak dira, garbiak; energia lortzeko oso bide egokiak direla uste dut. Elgean, baina, gauzak ez dira oso zuzen egiten ari. Ezkutueria asko dago, Udalek ezin izango dute parkean parterik izan eta, gainera, jendea zentralaren kontra dago.

Nire ustez, mota honetako lanak ondo egin behar dira, informazio garbi eta zuzenaz. Bestalde, jendeak zerbaitegatik ez badu nahi mota honetako zerbaite, ez lukete inposatu beharko. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Arrasateko Komiki Ez Sexisten III. lehiaketa

Arrasateko Udaleko Emakume Sallak, Gazteria eta Euskara sailekin batera antolatuta.

Sarjak:

- Lehen saria 90.000 pta.
- Aukera berdintasuna hobeto lantzen duen komiki lana: 60.000 pta.
- Emakume egilea: 60.000 pta.
- Gazte saria: 30.000 pta.
- Euskara saria: 30.000 pta.
- Lanak aurkezteko epea: uztailek 21
- Oinarriak Arrasateko Emakume Sailean.

Hartin aldizkaria

Ekainean etxetan banatuko den Hartin aldizkariaren “Zer duzu esateko?” atalean zure irizki, komentario, salaketa... aterako ditugu.

Nora jo?

- Arrasateko Udala-Emakume Saila, Herriko plaza, z/g, 20500 Arrasate
- Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net

Emakumeen Kontseilua

Bertara gonbidatuta dago emakumeen egoeraren edota aukera berdintasunaren inguruan proposamenak dituen edozein herritar.

- Maiatzaren 16 asteartean, arratsaldeko 18:30ean izango da bilera eguna.
- Arrasateko Udaletxeko hirugarren solairuan.

Sexologia Zerbitzuak, ordutegi berria

- Garibai Etxean, Gazte Bulegoa dagoen eraikinean kokatua dago Sexologia Zerbitzua.
- Ordutegi berria: astelehenetan arratsaldeko 5etatik 8etara, eta ostegunetan arratsaldeko 3etatik 6etara.
- Zerbitzuko arduradunekin hitz egiteko edota erantzungailuan zure mezua uzteko deitu 943 79 80 10 telefonora.

Argibideak: Udaleko Emakume Sailean
Telefonoak: 943 79 09 00
943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■



MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa
Tlf: (34) 943.744132 - Fax: (34) 943.744153
e.mail: - amaia@fmh.es



2000/2001 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- MEKANIZAZIOA

**Maiatzaren 18an atek zabalik
Arratsaldeko 7etan**



Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 12ra, biak barne


Zure sintonia: Arrasate Irratia FM 107.7!

09:00 Albistegia

09:30 Goizoro

11:00 Formula 10

12:00 Zeu be bai



Tel.: 943 71 23 97

Eskerrik asko gurekin bat egiteagatik

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Timoftol	1	1	0	0	11	5	2
AC Surkos	1	1	0	0	6	2	2
IKP	1	0	0	1	5	11	0
Garaje Oscar	1	0	0	1	2	6	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etixerat Taberna	1	1	0	0	9	1	2
Dribling	1	1	0	0	7	4	2
Komando Alpargat	1	0	0	1	4	7	0
Kanpazar Harrobia	1	0	0	1	1	9	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	1	1	0	0	4	2	2
AT Lokala	1	0	1	0	4	4	1
Orlando Piratas	1	0	1	0	4	4	1
Irati STS	1	0	0	1	2	4	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Branka Tab.	1	1	0	0	10	4	2
You Know	1	1	0	0	3	0	2
DA Iriztu	1	0	0	1	4	10	0
Kamasutra	1	0	0	1	0	3	0



Emaitzak

A taldea

IKP 5 - Timoftol 11
AC Surkos 6 - Garaje Oscar 2

B taldea

Etixerat Tab. 9 - Kan. Harrobia 1
Komando Alpargat 4 - Dribling 7

D taldea

Aldibi 4 - Irati STS 2
AT Lokala 4 - Orlando Piratas 4

E taldea

DA Iriztu 4 - Branka Tab. 10
You Know 3 - Kamasutra 0

IKA-MIKAK

Hasi da dagoeneko Zaldibarko Txapelketako bigarren aldia. Joan den asteburuan jokatu zen lehenengo jardunaldia eta ika-mika batzuk kenduta normaltasun osoz jokatu ziren neurketa guztiak. Ika-mikak diogu, izan ere, bi jokalariri zigorra jarri die antolakuntzak. Dirudie-nez, epailearekin sartu ziren.

Jokalarietako bat IKP taldeko bederatzi zenbakiduna izan zen. Jokalari honek ezin-go ditu bi partida jokatu. Eta gauza bera gertatu da Orlando Piratas taldeko Juanillo-rekin. Honek ere modu txarrean erantzun zion epaileari

Irati STSren aurka jokatuta-ko partidan eta beste bi partidan ezingo du jokatu.

EPAILEAK SOS

Eta aurretik esandakoa gutxi balitz, antolakuntza epaile beharrean dago. Aurreko astean ere esan genizuen epaileak behar zirela. Ba aste honetan ere horixe bera gogorazteko eskatu digute antolakuntzakoek. Beraz, badakizue: urte osoan zehar lanean ibili den mutil talde horri laguntza eskaintzeko prest baldin bazaudete, Irati tabernatik pasa zaitezke eta epaile izateko prest zaudetela esan. Zain dauzkazue!

GOL GEHIEN

Timoftol taldeak sartu zituen gol gehien bigarren aldiko lehenengo jardunaldian. Guz-tira hamaika izan ziren. IKP-taldeari sartu zizkion guztiak. Bere atzetik, Branka Taberna daukagu. Talde honek hamar gol sartu zizkion DA Iriztu taldeari. Golik sartu barik gelditu zen talde bakarra Kamasutra izan zen. 3 eta 0 galdu zuen You Know taldearen aurka.

ARRASATE KIROLAK
Kontzexino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Bigarren aldiko 2. jardunaldia

Iarunbata 13


Zaldibar

10:50 Komando Alpargat - Etixerat Taberna
12:00 AT Lokala - Aldibi
13:00 Kamasutra - DA Iriztu
15:50 IKP - AC Surkos
17:00 Orlando Piratas - Irati STS
18:00 Dribling - Kanpazar Harrobia

igandea, 14

11:50 You Know - Branka Taberna
13:00 Timoftol SMD - Garaje Oscar


ESKUBALOIA Arrasatek galdu

 Arrasateko eskubaloia taldeko gazteek Oñatiren aurka jokatu zuten Iturripen, eta euren jokorik makalena erakutsi ziguten.

Kanpotarrak nagusi izan ziren ia partida osoan zehar eta gol asko egon ziren. Defentsa baino eraso gehiago egon zen. Lehenengo zatiaren amaierara oñatiarrak aurretik zirela iritsi ziren, eta bigarrean ere eurek estutu zuten. Mondragoetarrak golak sartzen saiatu ziren, baina oñatiarren atezainak lan ona egin zuen eta jaurtiketa gehienak gelditu zituen.

Azkenean oñatiarrak azkarragoak izan ziren eta eurek irabazi zuten partida: Arrasatek 26 - Oñatik 29.

FUTBOLA Hamarren aurka irabazi

 Lehen errejionaleko Mondrak irabazi egin zion Aretxabaletari. Jende gutxi egon zen Atxabalpen. Gol aukera asko egon ziren baina guztira hiru gol bakarrik sartu zituzten bi taldeek.

Lehenengoa Mondrarena izan zen, baina lehen zatia amaitu aurretik atxabaltarrek berdindu egin zuten. Richik sartu zuen gola, baina pozak gutxi iraun zuen: epaileak txartel gorria atera zion eta kale-berbidali zuen. Bigarren zatian, Mondrak gol aukera asko izan zituen arren, bakarra sartu zuen bigarren zatian ere. Matikuk egin zuen eta horrela amaitu zen neurketa: 2 eta 1, Mondraren alde.

TXIRRINDULARITZA Iñaki Juldain zazpigarren

 JMA taldeko bigarren urteko kadeetee San Isidro txirrindulari lasterketa izan zuten jokoan joan den larunbatean, eta arrasatearren artean azkarrena Iñaki Juldain izan zen. Bera zazpigarren helmugaratu zuen. Lasterketa Hiercor Goierri taldeko Iker Juntorenak irabazi zuen. Bergarako Labegarrietako auzoan, Arrasatera bidean, euri zaparradak harrapatu zituen txirrindulariak, ibilbideko azkenengo biran.

56 kilometroko ibilbidea 62 txirrindularik amaitu zuten eta JMA taldea hirugarren izan zen. Larunbatean Zarautzera joango dira.

Jokatzekoak

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Arrasate Almen-Mutrikua, zapatua, 16:30.
- **Gazteak:**
Bergara - Arrasate
- **Kadeteak:**
Arrasate - Almen Jakion, zapatua, 18:30

FUTBOLA

- **Lehen errejionala:**
Ilintxa-Mondra
- **Ohorezko gazteak:**
Beasain-Mondra
- **Lehen mailako gazteak:**
M. Bihotza-Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:**
Urola-Arrasate
- **Bigarren kadeteak:**
Ikasberri - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Aloña Mendi-Arrasate
- **1. errejionala, neskek:**
Antoñano - Mondra

Berdinketa Otala-Zelain

Giro aparta izan zuten Urkulun elkartu ziren korrikalariak joan den igandean. Otala-Zelaiako herri-krosaren 22. aldia jokatu zen eta jende dezente bildu zen.

Senior mailako lasterketa nahiko parekatua izan zen. Zazpi korrikalari elkarrekin aritu ziren, baina multzoa txikitzen joan zen eta helmugaratu ziren lehenengo bien arteko lehia izan zen. Eskutik helduta iritsi ziren. Hala ere, Manu Hurtadori lehenengoaren garaikurra eman zioten eta David Alonsori bigarrenarena. Hirugarren atxabaltar bat sailkatu zen: Ramon Jausoro. Honek minutu eskas bat gehiago behar izan zuen.

Beste mailetan honela geratu ziren sailkapenak:

- **Emakumeak:** Eli Martinez.
- **Juniorrak:** Aitor Delgado.
- **Beteranoak:** Patxi Sanchez (1.), Jose Mari Gonzalez (2.)



Avila-Sarabia-Diosdado-Apraiz laukotea bigarren izan zen 4x100ean.

eta Alfonso Luelmo atxabaltarra (3.).

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Arrasate Kirolak Atletico Taldeko kirolariak, bestalde, Iruñean izan ziren larunbatean Euskal Herriko Taldeakako Txapelketa jokatzeko. Eta ez zuten batera gaizki egin. Izan ere, zazpigarren tokian sail-

katu ziren bizkaitarren aurretik, eta, gainera, mailari eustea lortu dute. Horrez gain, hainbat probatan zilarra eskuratu zuten: Unai Sarabia 2. izan zen 200 metroan eta Avila-Sarabia-Diosdado-Apraiz taldeak postu bera lortu zuen 4x100 metroko lasterketan.

Igandean alebin mailako Gipuzkoako Banakako Txapelketa jokatu da Ordizian.

Kenci Arrasate Bigarren Mailan

Joan den larunbateko partida tramite hutsa izan zen arrasatearrentzat, bigarren mailarako igoera eskuratuta zuten eta. Azpeitiarren aurka 66 eta 71 galdu zuten.

BALORAZIOA

Jon Basurkoren ustez, "mailaz igotzeko aukera eman dio Arrasate Saskibaloia taldeari. Hasierako helburua lortu dugu. Lander Errastiren taktika, buruz buruzko defentsa estu eta eraso bizi eta azkarretan oinarritu da. Arrasate izan da talde guztien artean joko ikusgarrienetakoa egin duena. Etxean erakutsitako sendotasunak eta kanpoan irabazitako norgehiagokek, 3. tokiraino eramán gaituzte. Denboraldi hau amaitu eta hurrengoan pentsatzen hasteko garaia da".

Lur, ur-salbamendurako txakur arrasatearra

Boira Taldeak Terranova txakurren Espainiako Ur-Salbamenduko txapelketa antolatu zuen apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean Valentzian. Helburua, hainbat mailatan txakur hauek uretako salbamenduetan duten abilezia erakustea zen, eta horren arabera maila horretan aritzeko gai direla erakusten duen agiria eskuratzea. Arrasaten horrelako txakur bat dago: Lur dauka ize-na eta txuri-beltza da. Orain bi urte eta erdi ekarri zuten Madriletik. Dagoeneko, uretako salbamenduko hirugarren maila gainditu du (Valentzian) eta orain laugarreneko prestatuko dute Mertxe Valdiviesok eta Josu Beitiak. Bi hilabetero Yesako urtegi-ra joaten dira hirurak eta hantxe salbamendu probatan aritzen dira. Mertxek kontatu digunez "Lur oraindik gaztea da horrelako abilezia izateko,



Lur, irabazitako garaikurrarekin.

baina oso argia da eta azkenengo proba, Valentziakoa, itsasoan izan zen eta oso ondo ibili zen. Gu ere harrিতa gaudete, txakurra ekarri genuenean ez genekielako horrelakoa zenik".

TXAKURRA LAGUN

"Azkenaldian entzuten diren txakurren erasoak direla eta, Lur, Terranova txakur emea, egiteko gai dena azpimarratu beharra daukagu". Horrela baieztatu digu Mertxek. Bere ustez, ez da ezagutzen txakur-ek horrelako gauzak egiten dituztenik, eta "esan beharra dago".

HURRENGO PROBA

Frantziako eta Italiako txapelketara aurkeztuko dute Lur bere jabeek urriaren hasieran. Izan ere, Espainiako Terranova txakurrendako egiten diren horrelako proba guztiak gainditu ditu Lurrek dagoeneko, eta horregatik orain beste batera aurkeztuko dute.

Baina, aurretik Guadalarajara joko dute. Hantxe salbamenduko laugarren mailako probetara aurkeztuko dute Lur.

Gimnasia erritmiko erakustaldia



Igandean goizeko 11:30etan izango da erakustaldia, Musakolan.

Igandean, San Isidroko jaiak direla eta, Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeak gimnasia erritmikoko erakustaldia antolatu du. Musakolako kiroldegian izango da, goizeko 11:30etatik aurrera.

Arrasatekoekin batera,

Oñatiko eta Eskoriatzako gimnastak arituko dira. Guztira 85 bat gimnasta espero dituzte, 5 eta 18 urte bitartekoak.

Taldea zein banaka arituko dira pilota, soka, uztai eta mazeekin, eta baita esku hutsik ere.

Pilota San Isidrotan

Erro enpresak pilota txapelketa bat antolatu du, San Isidrotako txapelketa. Eskuz banaka Langaran eta Andres Lezeta arituko dira. Eskuz binaka Pedrito "El Indomable" eta Vitoria "Alaves Oriundo de Musakola" arituko dira eta bestetik, Tomas eta Txispas "Arrasateko saltseroa" larubatean 11:00, Musakolan.

Bestalde, gaur Uarkapen herri arteko txapelketan, 22:00etan, kadetetan Uribarren eta Agirre; gazte mailan, Jimenez eta Dominguez eta afizionatuetan Zugasti eta Lazkano arituko dira Aizarnazabalaren aurka.



ARRASATE
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Aurreko osteko erantzuna: Think Pink markako kamiseta zuen Arrasate Kirolakeko manikiak.
Galdere: Inurrategitarrak Manaslura eta Annapuma igoizekoak ziren. Zein gailur lortu dute?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

Jardunaldi bereziak



Eskola Kirola egiten duten seigarren mailako ikasleek kirol ekintza bereziak izango dituzte datozen bi asteburuetan zehar.

Entrenatzaile espezialistek eskola bereziak emango dizkiete neska-mutiko hauei. Herriko kirol taldeetako entrenatzaileak izango dira espezialista hauek.

Helburua, ikasleek hurrengo urtean aukeran izango dituzten kiroletako arduradunak ezagutzea da eta, bide batez, entrenatzaileek neska-mutikoak ezagutzea.

Hori dela eta, asteburu honetan, pilota, errugbi eta futboleko ekintzak izango dira. Musakolako kiroldegian izango dira goizeko 10etatik aurrera. Ikasleak hiru taldetan banatuko dira eta ordubetez elkarre bakoitzeko arduradunen



Igandean goizeko 8:30ean aterako dira mendiruntz.

esku egongo dira.

Hurrengo asteburuan, ostera, saskibaloia, eskubaloia eta atletismoko elkarrean txan-

da izango da. Hauek ere larunbatean, maiatzak 20, izango dira, goizeko 10etatik aurrera Iturripeko kiroldegian.

Ondo pasa eta aukera egokiena hautatu!

👉 KIROLA EUSKARAZ

Larunbatean amaituko da Debagoieneko Euskara eta Kirol Zerbitzuak antolatzen duen urteroko kanpaina. Aurtent "Irabazleak behar ditugu" izan da kanpaina eta larunbatean amaitzeko zera eskatu die kirolari gazteei: kirol hitzorduetan kanpainako pegatinak ipintzea eta kirola egin beharreko lekuetan euskaraz egitea eskatzen duten pankartak jartzea. Arrasate Kirol Proiektuko begiraleek 400 pegatina eskatu dituzte, eta larunbatean partidak dituzten neska-mutiko guztiek aldean banatu izango dute.

👉 MENDI IRTEERA

Igandean, maiatzak 14, izango da Arrasate Kirol Proiektuaren zortzigarren mendi irteera. Oraingoan Entziara joango dira eta aurtengo azkenaurtereko irteera izango da. Ibilbidea honako hau da: Opakua gaina-Ballo-Legaireko kanpaina-Andoin. Irteera goizeko 8:30etan izango da eta itzulerara, berriz, 16:00ak aldera.

Asteburuko hitzorduak Maiatzak 13, larunbata

👉 AURREKIROLA

Jturripe
10:00

👉 MULTIKIROLA

Jturripe
09:00 5. mailakoak
Teilamendira irteera
Musakola
10:00 6. mailakoak

👉 INFANTILAK

SASKIBALOIA

MUTILAK

San Viator
10:30 Arrasate A - S. Viator
Arrasate B Atsedena

NESKAK

San Viator
11:30 S. Viator - Kurtzebarri



Arrasate A taldea.



San Viator A Aurrekirol taldea.

Gozatu udaberriaz gurekin



ARRASATE
KIROLAK



Kontzeziño, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 12

Kultura Asteak, segidan



Extremadura eta Andaluziako dantza tipikoak eskainiko dizkigute Elkarteek.

Jaiak gainean ditugula, bi elkarteren kultura astez gozatzeko ari gara, Corazon de Encina extremadurarrarena, eta Al-Andalus andaluziarrarena.

Astelehenean hasi zen Corazon de Encinaren X. Kultura Astea, baina asteburuan emango du bere onena. Ekitaldi nagusia Vicente del Pozo lehendakariak zapatuan egingo duen ohorezko agurra izango da.

AL-ANDALUS

Elkarte extremadurarrak andaluziarrari pasako dio txanda.

Hilak 14an hasiko da Al-Andalusen XI. Kultura Astea, lehendakariaren pregoiarekin. Ondoren, datorren 27a arte, egitarau zabala izango dute Al-Andalusekoek. Horiek ere elkarteko talde bakoitzaren hoberena erakusten saiatuko dira, antzerki, musika, dantza eta txirigotekin. Gastronomia, kirol eta jokoaren tartea ahaztu gabe, jakina.

Arrasateko extremadurar eta andaluziar elkarten eskutik, Sanjoanak etorri bitarteko egunetaz ere ederki gozatzeko aukera izango dugu.



Margo erakusketak aukeran

San Isidro jaiak direla eta, zapatu eta domekan Musakolako artisten erakusketari emango dio ostatu auzoko Erretiratuen Etxeak. Horrez gain, Monterroneko margo-gintza ikastaroko lanak Harresi Aretoan egongo dira ikusgai, hilaren 19tik aurrera.

KANPOKO ARTISTAK

Baina Mondragoetik kanpoko artisten lana ere ikusi ahal izango dugu.

Maiatz osoan zehar, San Andreseko Toki-Eder kafetegian Piedad Santamaria bizkaitarraren margoak izango dira erakusgai. Orain bi urte Arrasateko I. Margo Lehiaketa irabazi zuen Piedadak.

Bestalde, Corazon de Encinaren Kultura Asteak irauten duen bitartean, Pedro Quintana margolariaren erakusketa bati emango zaio ostatu. Badajozen sortua da Pedro Quintana, baina Ermuan hazi zen eta bertan ikasi zuen margotzen.

Mundua zure ikuspegitik

Hilaren 14ra bitartean, mundu osoan dabilen erakusketa ikusteko modua izango dugu, Udalaren eta Kutxaren eskutik: Mundua Zure Ikuspegitik. Gai aberatsez eta teknika bikainez osatutako erakusketa da.

1995ean, Nazio Batuen sortu zireneko 50. urteurrena zela eta, Ingurumenerako Nazio Batuen programak munduko pertsona guztiak gonbidatu zituen gizakion aniztasuna argazkietan islatzera. Erakusketak jasotako argazki onenak biltzen ditu.

Aurtengo gaia, arrazakeria

Hamaikagarren urtez, argazki lehiaketa abiarazi dute Udaleko Gazteria eta Emakume Sailek eta ASA argazkizale elkarteak. Aurtengo Gazteak eta Arrazakeria izan da aukeratutako gaia. Gizar-tean dauden arazoaren inguruan gogoeta eragitea da lehiaketa horren helburuetako bat. Aurtengo, 75.000

pezetako bi sari eta 50.000ko hiru banatuko dira helduen kategorian. Debagoieneko 14-18 urte bitarteko gazteentzako kategorian, bi argazki kamera emango dira.

GAZTE GUTXI

Iaz, Euskal Herriko eta Espainiako 50 bat lagunek hartu zuten parte lehiaketa horre-

tan, 124 argazkirekin. Hori helduen kategorian; Debagoieneko gazteen kategorian, ordea, ez da inolaz ere aurreratu azken urteotan.

Hori dela eta, antolatuzaileek dei berezia luzatzen diote adin talde horri, euren ustez irabazteko aukera handiak dituzte eta. Beraz, badaukizue; parte hartu.

irakurle eta entzule

Iturria: Jungla disc

diskoak

DOCTOR DESEO

"Atrapado en tu silencio de incertidumbres y caricias" Discos Suicidas



"Kontzentratu. Lehenengo argibidea... Beste bat? Eta orain musika ere nahi duzula esango duzu! Hara, Playri eman

eta amets egin". Doctor Deseoren disko berria da eta Windows 98 izanez gero, 10 segundoko bideo batean esaten da aurreko dena. "Atrapado en tu silencio de incertidumbres y caricias" izeneko bilbotarren azken lana da. Hamar kantu ditu, gehienak tekno-erritmoak dira, euren hasierako doinuetatik urruti samar.

Dena dela, Francisek betiko kontuez abesten du: amodioa, sexua, gizakion eguneroko arazoak, bakartasuna... Euskaraz ere ausartu da: "Morrosko laztana", Atlantikoa zeharkatzen duen euskalduna. Gainerakoan: "Esta noche quiero estar encadenado a tus juegos"...

liburuak

ZAUDETE GELDI PIXKA BATEAN

Andoni Egaña

Elkarlanean, Xaguzar bilduma. 111 orr.



Argazkilari batek ikastola garai-lagunen argazki bat ostu du aspaldiko andereñoaren omenaldi afarian. Haiei begira, gaur gizon-ema-kume hel-

duak diren gaztetxo haien txikitako orotzapenak zirriboratu ditu, hamahiru kontakizun laburretan.

Kontrapuntu gisa edo, istorio bakoitzaren bukaeran protagonistaren gaur egungo egoeraren berri ematen digu, gehienetan ironia fina erabiliz.

Liburu atsegina eta irakurterraza da. Eseraldi batean irakur daitekeen horietakoa.

asteko filma



Scream 3

Beldurrezkoa. EEBB, 2000.

Zuzendaria: Wes Craven.

Aktoreak: Neve Campbell, David Arquette, Courtney Cox.

HARIA

Scream eta Scream 2 ikusi duzue-nok jakingo duzue zertan datzan hirugarren atal honek: heriotzaren masakapean ezkututzen den hiltzailea, birritan erasotu eta porrot egin ondoren, hirugarrenez saiatuko da Sidney Prescott desagertarazten. Tartean, sustoak, ondo lurperatu gabeko iragana bueltan eta umore beltza.

KRITIKA

Hariaz jabetzeko aurreneko bi atalak aipatzea ezinbestekoa bazen, hirugarren garrasi hau behar bezala baloratzeko ere beste biak begiratu behar. Gaztetxoak protagonista dituzten beldurrezko filmak gogoko badituzue, honek ondo aseko zaituzte. Hala ere, aurreko bi atalak esku bete zuten ironia eta bihurrikeria faltan botatzen dira, eta istorioa bera makal samarra da. Hirugarrena dela kontuan hartu behar...

asteburuan zer

kontzertuak

ROCK'N'BLUESA

ANDRE WILLIAMSEN ESKUTIK

Andre Williams musikari veteranoa Bergaran izango dugu, Jam aretoan kontzertua eskainiko duelako 22:00etan. Berari lagun egiten, Athom Rumba taldea.

Andre Williamsek "Mr. Rhythm" gaitzizena du, eta ez da harritzekoa, 64 urteko estatubatuar honek erritmoa bere zainetan baitu jaio zenetik. Alabaman jaio zen, eta 16 urterekin hasi zen abesten, Chicagoko auzo bateko elizako abesbatzan. Musika industriari zeresanik bazuela ikusita, Detroitera joan zen; Fortune Records diskoetxeak beragan konfiantza ipini eta orduan jaio zen musikari moduan bere ibilbide luzea. Rocka eta



Rhythm'n'Bluesaren arteko nahasketa jorratzen du Williamsek.

Une txarrak ere izan ditu musikari handi honek. Zailtasun horiek gaingitu ondoren, orain 4 urte indarberiturik itzuli zen, "Greasy" diskoarekin eta mundu birekin. Talentua agortu ez zaiola frogatzen digu 1998ko "Silky" eta iazko "The Black Godfather" lanekin.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO

KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzaren 19: **Stiff Little Fingers**

Maiatzaren 20: **Saxon eta Bon Scot Band**

Egun bakoitzerako **3** sarrera zozketatzen ditugu.

Kontzertuetarako irabazleak gaur gauean Soinuaz Blaien Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak:

Tel.: Eguna:



Programazioa

OSTIRALA, 12

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelaizabal
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Musiklasik** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko
albisterik nabarmenenak,
Eneko Azkaratek
aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

LARUNBATA, 13

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Alkatearekin Berbetan, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 14

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Alkatearekin Berbetan, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 15

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Kontxi Juantorena, Uxarte
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Musakolako jaiak.**

ASTEARTEA, 16

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Igor Ezpeleta, Elizondo
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Mondrasport.**
- 14:30 **Musakolako Jaiak**
(errepika).
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.**

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Postreak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 15	Ijito besoa.
Astearte 16	Erroskilak.
Asteazkena 17	Fruitu eta intxaur konpota.
Osteguna 18	Almendra flana.
Ostirala 19	Meloi zopa.

Sexualitate atalean, ipuin erotiko bat irakurriko du Josemari Karrerek. Arazo psikikoak ere aztergai izango dira. Lorei dagokienez, dahliak erakutsiko dira. Eduard Hopper margolari estatu batuarren lana ere aurkeztuko zaigu. Eta amaitzeko, Israel, horixe izango baita aste honetako bidai proposa-mena.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).

ASTEAZKENA, 17

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelai-Zabal
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin**
(errepika).

- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Musakolako jaiak**
(errepika).
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).

OSTEGUNA, 18

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Eduard Izarzelai, Dukiena
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Musakolako jaiak**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Zortziko Txikian.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
Gonzalezekin.

OSTIRALA, 19

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Aitor Aizpurua, Iturritxo
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Zortziko Txikian**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko
albisterik nabarmenenak,
Eneko Azkaratek
aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotatuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Badator Goitb



Maiatzaren 22an, astelehena, Goitb jaioko da, Goiena Telebista. Egun horretatik aurrera, beraz, ez da Arrasate Telebistarik izango.

Goiena Telebista Leintz aldera zabalduko da oraingoz. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz-Gatzagan eta Aramaion ikusiko da. Bigarren aldi batean Bergaran, Elgetan, Antzuolan eta Oñatin ikusiko da, baina hori aurrerago izango da, uda ostean seguruenik. Lehen aldi honetan, hortaz, 35.700 ikuslerengana iritsiko da.

Goiena Telebista jaioko dela eta, Aretxabaleta Telebista eta ATB desagertu egingo dira. Aretxabaletakoak maiatzaren 5ean egin zuen azken emisioa. Hango langileak Arrasaten ari dira orain, orpoz-orpo lanean ATBko taldearekin batera.

Aramaioko Udalak onartu egin zuen osoko bilkuran Goitb ikustea. Dagoeneko eskatu du baimena Eusko Jaurlaritzan, emisoreak-eta jartzeko. Erantzunaren zain dago. Dena dela, datorren astean espero da tresneria jar-

tzea eta Aramaion ere ikustea. Eskoriatzan ere, laster egongo dira Goitb ikusteko moduan.

BERRIEMAILEAK

Goitb-k berriemaileak izango ditu herri hauetan. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako informazioa Aretxabaletan landuko da eta Amagoia Lasagabaster arduratuko da horretaz, orain arte Aretxabaleta Telebistan lan egin duen kazetaria. Eskoriatzan Axtrokiko kideak izango ditu laguntza ematen; Leintz-Gatzagan, ostera, Aintzane Gardoki.

Arrasateko eta Aramaioko informazioa Maider Osa kazetariak landuko du. Aramaion Rosa Mondragon izango du laguntzen. Eta erredakzio guztiak koordinatzen Joxe Aranzabal izango da, erredaktore burua.

Goiena Telebistak albistegi bereziak egingo ditu 22tik 26ra doan astean. 23an Aramaion grabatuko du albistegia; 24an Aretxabaletan; 25ean Eskoriatzan; eta 26an Leintz-Gatzagan.

Lehen aldian, 35.700 ikuslerengana iritsiko da Goitb

Motzean

Gaizka Vitoria



Arrasate Irratiko teknikaria Eibarren jaio zen orain 22 urte. Soinu Teknikari ikasketak egin ostean etorri zen Arrasate Irratira.

- **Nolatan irrati teknikari?**
- Musika gustatzen zaidalako.
- **Lanbidez aldatzekotan?**
- Kazetaritza.
- **Euskadi Gaztea ala Los 40 Principales?**
- *Euskadi Gaztea*. Musika hobea du.
- **Irratsaierik gustukoena?**
- "Hi bizi haiz, hi", Euskadi Gaztean.
- **Miresten duzun esatari bat?**
- Ez nuke jakingo esaten.
- **Diskorik kuttunena?**
- "Led Zeppelin III".
- **Zer abesti eskainiko zeniguke?**
- "Metallica One", Metallica taldearena.
- **Zure dohain bat?**
- Ez dut gezurrik esaten.
- **Amets bat?**
- Rock izarra izatea.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuluaga kalea, 10 ▪ Tel: 943 79 48 77 ▪ ARRASATE

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Meatzerrekan guztiz berritutako baserria salgai, luxuzkoa. "Aitzapi" izena du baserriak. Tel.: 943 79 70 25.

• Etxea salgai, 45 m²koa zentroan. Konponketak egiteko. Tel.: 943 79 81 25. Gaeuz.

2. Erosi

• Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25, 20:00etatik aurrera.

• Etxebizitza erosi nahi dugu Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Torreveijan. Bi logela, jangela eta hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Hiru gelako etxea alokagai San Andresen. Tel.: 607 84 86 73.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat, Arrasate Pasealekuan, 11. 2. ezker-rra. Etxe berria. Tel.: 943 78 01 45.

• Peñiscolan apartamentua alokagai ekainean, uztailean, abuztuko lehenengo hamabostaldian eta irailan. 100 m², igerilekua. Tel.: 943 79 48 82.

• Oropesa del Marren etxea alokatzen da udan. Tel.: 964 31 08 55.

• Donostian (Antiguon) etxea alokatzen da, uztailea eta irailan. Hondartzatik 200 metrora. Tel.: 943 79 82 05 (21:00etatik aurrera).

• Laredon apartamentua alokatzen dut. Hondartza ondoan. Uztaileko eta iraileko hamabostaldietan. Tel.: 943 79 31 47.

• Uztailea eta abuztuan bungalowa alokagai Peñiscolan. Tel.: 943 77 05 88.

• Apartamentua alokagai Torreveijan. Guztiz hornituta, hondartza ondoan. Ekaina eta uztailea. Tel.: 943 78 14 72.

• Zarautzen erdialdean teilatupe igogailuduna alokagai, denboraldi osoan, oso merke. Tel.: 943 13 07 90.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza behar da errentan hartzeko Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Lau neskek etxea alokatuko luke. Tel.: 943 79 50 85.

• Eskoriatzan etxebizitza bila gabiltza 4 neska. Tel.: 943 88 50 74.

5. Etxeak osatzeko

• Bi gela alokagai Erguin kalean. Tel.: 639 58 93 66.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko Arrasaten (Lehenbailean) Tel.: 616 82 17 23. Garbiñe.

• Logela bat alokagai, San Andresko etxebizitza batean. Tel.: 667 48 30 94.

• Jendea behar da pisua betetzeko Arrasaten. Tel.: 619 77 50 19.

• Jendea behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 649 68 22 25. Gorka, gaeuz.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Usaetxen garaje itxia salgai. Tel.: 943 77 12 77.

14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

LANA

17. Eskaintza

• Arrasaten gazte arduraduna eskaintzen da tabernan edo antzeko nonbaiten lan egiteko goizez edo gaeuz. Tel.: 943 77 14 32.

• Neska prest Arrasaten arratsaldeaz umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• 10 urteko esperientzia duen emakumea prest orduka etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo bestelako lanak egiteko. Kotxearekin eta eskalduna. Informarekin. Tel.: 677 71 93 31.

• Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 600 600 531.

• Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 616 66 48 51

• Neska lan egiteko prest. Tel.: 646 61 13 83.

• Haurrak zainduko lituzke emakume esperientziadunak. Tel.: 943 77 05 39.

• Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. Arratsaldeaz nahia-go. Tel.: 943 79 11 46 (deitu 20:30etatik aurrera, baita igande eta larunbatetan ere).

18. Eskaerak

• Eskoriatzako ile apaindegi bat zure bila dabil. Estilista izateko frogak egingo ditugu. Bidali kurrikulumak maiatzaren 12a baino lehen. In-txautxuetara 6, Behea. 20.520, Eskoriatza.

• 4 urteko neskatila bat zaintzeko pertsona arduratsua behar dut. Tel.: 943 79 82 18, 20:00etatik aurrera.

• Marketing edo komertzial bokazioa duen ikaslea behar da. Bidali kurrikulumak 147 posta kutxatilara.

• Mutila behar da harategian lan egiteko. Tel.: 943 79 14 86.

• Taberna baterako sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 617 60 84 45.

• Emakumea behar da irailetik aurrera bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 696 40 40 67 (utzi izena eta telefono zenbakia).

• Pertsona behar da tabernako sukaldarian lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Sukaldaria behar da, astelehenetik ostiralera Aretxabaletako taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 20 45.

• Emakumea behar da edadeko emakumea zaintzeko, asteburuetan ordu batzu. Tel.: 943 79 09 93. Pilar.

• Sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 61 64.

• Umea zaintzeko emakume eskalduna eta esperientziaduna behar dugu. Tel.: 943 79 98 46 (20:00-22:00).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

21. Eskaerak

• Bi neskak ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

• Playstation erabili gabea. Prezioa: 15.000. Tel.: 943 79 52 27.

• Peugeot 806, 7 plaza. 2.0 gasolina. Tel.: 607 15 30 70.

• Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.

• Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel.: 943 71 54 59.

• Gas gas Trialeko motorra salgai. 250 cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309 salgai. Lau ate, SS-AF matrikula. 170.000 pta. Tel.: 670 42 07 07.

• Motorra salgai, Suzuki GS-500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000

km. Asegurua 2001,eko maiatzera arte, extrak eta oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

DENETARIK

26. Saldu

• Antzinako pianoa salgai. Tel.: 943 79 47 17. Gauez.

• Cocker amerikarrak salgai. hogeita hamar txapeldun. Tel.: 666 54 77 15, 943 79 68 53, eguerdian.

• 99ko Wip It piragua salgai. Remo, bainu estalkia eta 4 globo. Tel.: 943 79 78 36. Unai

• 9-12 urte bitarteko haurrentzako bizikleta salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 71 86 (Jone, 19:00-22:00).

• Mugitu ezin diren pertsonak eramateko garabi txikia salgai. Osagai guztiak ditu eta prezio onean salduko genuke. Tel.: 943 79 60 25.

• Boxer eta artzain-txakurren txakurkumeak pedigiarekin salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Bañaresko kanpinean mobilona salgai. Guztiz ekipatura eta bista errarekin. Tel.: 656 74 83 37.

• PEAR bateria salgai. Egoera onean. Tel.: 666 55 08 10 / 94 475 72 34. Mikel.

• Taberna-jatetxea salgai edo alokagai Aretxabaletan. 100 otordu inguru eguneko. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 20 45.

• Karabana alokagai. Hiru literaduna, ohe txiki eta handi bana (bikoitza). Sukaldean kanpoan frigorifiko handiarekin. Ekaina, uztaila eta

abuzturako. Tel.: 946 23 17 96. Itziar edo Mertxe.

• Karro denda alemana salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

27. Erosi

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kotxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

31. Galdu

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidenda-ko algozoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

• Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

33. Bestelakoak

• Botatzeko dituzun egurrezko atear jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

• Zure sukaldeko mahaia, auklia, armairuak edo gas sukaldearen erretiratu behar badituzu, neuk hartuko nituzke. Dei egidazu 616 12 57 26 telefonora.

• Martxan dagoen garbitasun enpresa saltzen dut, furgoneta, makinaria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000-500.000 pta. Tel.: 629 40 47 82.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

• San Andresen giltza mordoxka duen kremaileradun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoa dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

• Urrezko pultsera aurkitu dut Muna-reko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Xabi naiz eta 36 urtetik beherako mutilekin harremanak izan nahi nituzke. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zbk. 20560 Oñati Gipuzkoa. Nire aldetik erabateko zuhertasuna.



- Garageko ateark •
- Burdinazko pertsianak •
- Automatismoak •
- Urrutiko agente tresnak •
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak •
- Konponketak •

San Isidro jai zoriontsuak!!

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE





Maiatzaren 15ean inauguratu zen San Isidro ermita Zigorrolan. 1945. urtea zen. Ordukoa da argazki hau, inaugurazio eguneko, hain zuzen ere. Horrelakoetan ohikoa denez, ermitaren atea ireki aurretik bedeinkapena eman behar da. Lan horretarako benetan gizon ospetsuak gerturatu ziren Musa-

kola aldera egun hartan.

Ezkerretik hasita, On Jose Maria Arizmendiarieta da azaltzen den lehen abadea; sermoia irakurtzen dagoena, berriz, orduko parrokoa da: On Jose Luis Iñarra. Haren ondokoa, On Justino Uribesalgo eskoitzarra da eta azkenik, eskuma aldean dagoena, On Paco Imaz.

Abadeekin batera, auzotar piloa izan zen inaugurazio egunean. Ezkerretik hasiz gero,

eliz-mutilaren atzealdean agertzen den gizonezkoa Nicolas Garay da, Zabaleta baserrikoa, ondorengoa ezezaguna zaigu eta hurrengoa, berriz, Iribecampos da, Intxausti baserrikoa. Azken honen alboan Mojategi baserriko Gregorio Sagasta dago, eta apur bat gorago dagoena Victoriano Arrizabalaga da. On Jose Luis Iñarren goiko aldean agertzen den betaurrekoduna, berriz, Alber-

to Ruiz de Azua da.

Eskumara salto eginez gero, On Justinoren eta On Pacoren erdian agertzen den emakumea Maria Luisa Egidazu da, Arrue baserrikoa, eta azkenik, On Pacoren atze inguruan azaltzen den gizonezkoa Gaspar Ezkurra da, Garratz baserriko Julia Arregiren senarra.

Argazkia eta berriemailea:
 Pepita Barrutiabengoa.

ERRENTA AITORPENA 99


Informatu, aurten legea berria da!

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**


Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68



Aldez aurretik deitu !

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



Maiatzak 20 eta 21

FERITUR

DEBAGOIENENKO I. TURISMO AZOKA

ARRASATE UARCAPE Frontoia

ORDUTEGIA 10:00 - 15:00 / 16:30 - 21:00

Sarrera Dohain



BIDAIEN ZOZKETA

Antolatzailea

Laguntzailea


OCL 37-03
HALCON
BIDAIK

DEBAGOIENENKO
MANKOMUNITATEA





Erakusketa aldaketagatik..



- Logelak
- Egongelak
- Sofak

GRUPO



Amuebladora Mondragonesa

a eme Interiores
Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

... %20tik %50era bitarteko deskontuak



a eme interiores

Garibai 9. Tel.: 943 79 15 03